

**ARRATE KULTUR ELKARTEA**  
**1952-2002**



<b>HITZAURREA</b>	<b>5</b>
<b>ARRATIAREN GAÑIAN ZENBAIT GOGOETA</b>	<b>7</b>
<b>BERROGEITAMAR URTEKO ZENBAIT GERTAKARI AIPAGARRI</b>	<b>8</b>
<b>EL PASADO OCULTO DE EIBAR. Jesús Gutierrez historiagilea</b>	<b>10</b>
<b>ARRATE: "LA KULTU". A. Akondia</b>	<b>14</b>
<b>HÁREK BAI SASOIAK HÁREK. Jose Aranberri</b>	<b>16</b>
<b>KULTURGINTZAREN AZPIEGITURA EIBARREN. A. Fernandez</b>	<b>17</b>
<b>RECUERDOS DE LA CULTU (1972-1975). Mikel Usobiaga</b>	<b>19</b>
<b>1952-2002 ARRATE KULTUR ELKARTEAK LANDUTAKO ARLOAK</b>	<b>21</b>
<b>Arrate Kultur Elkarteak Landutako arloak</b>	<b>23</b>
<b>EUSKAL KULTURA</b>	<b>25</b>
<b>ORAIN DALA BERROGEI URTEKO EUSKALGIROA KULTURALEAN. L.A. Aranberri « amatiño »</b>	<b>26</b>
<b>LEHEN UMIEN EUSKAL JAIAREN KRONIKA BAT. M.A. Astiz</b>	<b>30</b>
<b>Millares de niños, con trajes típicos llenaron Eibar en la Fiesta Vasca Infantil</b>	<b>30</b>
<b>Umien Euskal-Jaia, 67.Kronika.</b>	<b>31</b>
<b>Más de una hora duro el desfile de millares de niños.</b>	<b>31</b>
<b>GREGORIO SANTA CRUZ, DANTZA MAISUA ARRATE KULTUR ELKARTEAN. O. Araolaza</b>	<b>33</b>
<b>"SOINU-TXIKIAREN ERREPUBLIKA" Koldo Izagirre</b>	<b>36</b>
<b>ZINE-KLUBA</b>	<b>38</b>
<b>LAS CATACUMBAS DE LA DEMOCRACIA. F. Arroitauregi</b>	<b>39</b>
<b>EL FORUM DE LOS 70. J. Aguirresarobe</b>	<b>41</b>
<b>LA CULTURAL ARRATE Y EL CINE-CLUB. Jose Mari Salegi</b>	<b>43</b>
<b>MUSIKA</b>	<b>44</b>
<b>ANTZERKIA</b>	<b>46</b>
<b>BREVE HISTORIAL DEL " GRUPO DE TEATRO ARRATE". E. Barrutia</b>	<b>48</b>
<b>HITZALDIAK</b>	<b>49</b>
<b>KULTURALA Zeruko Argian</b>	<b>52</b>
<b>MARGOLARITZA – ERAKUSKETAK, LEHIAKETAK, IKASTAROAK</b>	<b>53</b>
<b>LITERATURA ETA LIBURUTEGIA</b>	<b>56</b>
<b>ZERAMIKA</b>	<b>58</b>

<b>IKUSENTZUTEKOAK</b>	<b>60</b>
<b>AUDIOVISUALES EN LA KULTU. F. Retolaza</b>	<b>62</b>
<b>ARGAZKILARITZA</b>	<b>64</b>
<b>BERTSOLARITZA</b>	<b>65</b>
<b>JOLASAK</b>	<b>67</b>
<b>IKUSI ETA IKASI</b>	<b>68</b>
<b>DANTZA. Dantzatu, dantzatu madarikatuok!</b>	<b>69</b>
<b>EMAKUMEA</b>	<b>70</b>
<b>¡LAS NOVIAS DE LOS SOCIOS! . Arrate Berasaluze</b>	<b>70</b>
<b>KOMUNIKAZIOA</b>	<b>72</b>
<b>ARRATE KULTUR ELKARTEA SORTU ZEN GARAICO TXIPRISTINAK</b>	<b>74</b>
<b>ARRATE KULTUR ELKARTEA GAUR</b>	<b>79</b>
<b>“Hau da Kultura eguneroko ohitura bihurtu gura”</b>	<b>79</b>
<b>50 Urte Euskal Kulturaren alde</b>	<b>79</b>
<b>Eguneroko lana</b>	<b>80</b>
<b>Etorkizunari begira</b>	<b>87</b>
<b>Elkartearen DESKRIBAPENA</b>	<b>89</b>

## HITZAURREA

Mende erdi baten testigantza nahi leuke liburu honek izan. Baina, zetarako guzurra esan, ez dau, inolaz be, bost hamarkadako ibilbide osoa agertzen, gure bazkide fundatzaile eta beteranuenak laster konturako diran moduan. Luze joko leuke guzti honen zergatixa azaltziak baina azarroietako bat denpora faltia izan leikiala esan bihar dogu, ez geure buruak zuritzeko, bihar hau euren gain hartu dabenei emon jakuen epiari urri samarra dala eristen detsagulako baino, kontuan izanda gainera, ez dabela hau euren ogibidia eta bittartietan egindako lana dala.

Badago, halanda be, zeregiña ugari, bateron batek Elkartiaren historixiari oratu nahi baletza sakon aztertzeko. Zer esanik ez dago atiak zabalik daukaguzela eta, pentsatzen dogu, ondiok gordin gordinak daren gure bazkide beteranuak be, gustora zabalduko leukiela heuren buruetan hain bizirik daken historixako artxibua. Hara hor gure desafixua !!!!.

Joandako urak errotarik mobiduko ez daben moduan, lehenago izandakuak ez detsa aparteko eraginik egingo gaurko eta geroko Arratiari. Halanda be, ezingo dogu ahaztu hainbeste eta hainbeste eibartarrek proiektu horretan jarrittako ilusiño eta gogua. Heuregaittik gara eta ondorengorik bada, oinarri berbera izango dabe. Ez dakigula, ba, ahaztu !!!!

Berrogetamar urteko historixiak jarraipena merezi dabelakuan gagoz eta horretara bideratuko dittugu indarrak ahal dan neurrixan. Ahal dan neurixan diñogu, eze, Arratiaren etorkizuna bermatu nahixan gabizenok bakar antzian dihardugula uste dogu eta. Baina, kantuak diñuan moduan “jaioko dira berriak eta etorkizuna errealidade bihurtuko da, bestiok be, ez gara hutsetik sortutakuak eta. Lehengua eta gerokuaren arteko zubixa garala pentsatu ta aurrera egin biharko dogu, Arrate moderno eta erakargarria bultzatuko leuken gazterixiari biharrera dei eginez bidebatez.

Bestetik ezin dogu ukatu bazkide zein gaiñetikuen disfruterako hor dittugula lokalak (konpondu biharrekuak egixa esanda) Kultur alor bat gehixago izan nahi leukienak Eibartarren eta Kultura beraren onurarako. Elkartiarena ezeze, Eibarko herrixarena be bada gorabehera guztiok konpontziaren arduria, ze, hainbeste urtian kalterik ez baiña, zerbait onik ezkeiñi badau, aurrerantzian, elkarlanian, frutu eder askuak emoteko eran jarri geinkiala pentsatzen dogu eta. EGIN DEIXOGUN BA !!!!

Gure eskerrik beruenak liburu hau berau eta urteurreneko ekittaldi eta ospakizunak prestatzen jardun daben bazkide bihotz zabalei.

**Arrate Kultur Elkartea**  
**Zuzendaritza Batzordea**

ARRATIAREN GAÑIAN ZENBAIT GOGOETA

**I**

**ARRATE IZENAREKIN  
KULTURA BIDEAN EKIN  
GERORA ERE ARLO HORRETAN  
EGIN DAU AHALEGIN  
HASIERATIK OSO FIN  
URTE BATZUETAN EZIN  
ORAIN BERBIZTEN HASIA DA TA  
DANONTZAT ATSEGIN. ( bis )**

**II**

**GEROKUAREN ARDATZA  
GAURKO EKIÑEAN DATZA  
AURRERAKO BE BIHAKO DOGU  
IZAN ESPERANTZA  
BARRUAN DOGU ARANTZA  
DATORRENAREN ZALANTZA  
LEHEN IZAN BADA EZTA FALTAKO  
ARRATIAN SALTSA. ( bis )**

**III**

**LEHENGUARI BEGIRATU  
DATORRENERI ORATU  
ZEREGIN ASKO EHUNGARREN HORI  
NAHI BADOGU HARTU  
LEHELENGO INDARRAK BATU  
ODOL BARRIXA BE SARTU  
DATOZEN HORREK ARRATIAKIN  
DEIXIEN GOZATU. ( bis )**

## BERROGEITAMAR URTEKO ZENBAIT GERTAKARI AIPAGARRI

Ondoko orrialdeetan Elkartearen bizitzan gertaturiko hainbat pasadizo irakurriko ditugu. Egia esan, beste bildumetan bezala, hemen irakurtzen dugunak hain bertan eta hain urruti geratzen den garaiaren zirrara uzten digu.

Hasteko, *Arratearen* zentralitatea azpimarratuko genuke. Denek nahi dute Arrate baliatu euren burua agertzeko. Sasoi hartan Arratetik pasatzen zen mugitzen zen oro. Edozein kultur ekimenek Zuloagatarren egoitza behar izaten zuen Eibarren ezagutarazteko. Ez hori bakarrik, 1964-1965 ikasturtearen hasiera bera ere Bazkunaren lokaletan ospatu zela irakurtzen baitugu! Telebista bera ere, NODO eta orduan bakarra zen TVE bera, Elkartera etorri ohi ziren kroniketan irakurtzen dugunez.

Aretoetan ukitzen ziren gaiak anitzak ziren: zezenetatik hasi, billar jokotik pasatuz, ekonomia, ideologia (1965ean komunismoaz ari direla irakurtzen dugu aktetan), alkoholismoa, osasuna, kirola, ezkontza-klaseak etc. etc., denetik lantzen zen.

Anitza zen Elkarteko bazkideen ideologia, nonbait. Moral hertsia, gaurko ikuspegitik ikusita noski, bazuen orduan ere jarraitzailerik. Zine-aretoan ematen ziren pelikuletan 3R gehiegi (orduan: “mayores con reparos”) zegoela ere irakurtzen baitugu.

Zer esan areto nagusira etortzen ziren figuren gainean? Narciso Yepes, Achucarro, piano joleak esaterako, seguru asko handik urte gutxira ezin izango ziren ordaindu baina orduko direktibakoek ongi asmatu zuten. Beste zenbait kasutan zenbaiten diru-eskaerak nahikoa handiak iruditzen zaizkigu. Pilar Cuadra idazle donostiarrak esaterako orduko 1000 pezeta eskatzen zuen. Ez zen gutxi.

Elkartearen ahalegina izugarria izan zen 60ko hamarkada hartan. Izan ere, nork irudika dezake gaur egun Zuloaga eta Olabe moduko pintore handi biren erakusketa leku pribatu batean? Halaber, Bazkuna banguardismoaren abia eta bulka izan zela ezin uka daiteke. Herrikoak eta kanpokoak, adibidez, hastapenetan zeuden Ur arte plastiko



taldea, Ibarrola pintorea eta beste hainbat eta hainbat artista ikusten ditugu Eibarren beren erakusketak agertzen.

Arratea ez zen edozer, eta frankismoaren orri beltza pasatzearen irrikitan zeuden eibartar askok elkarteari lagundu egin behar zitzaiola ikusten zuten. Abalisten izenak irakurtzea baino ez dago horretaz konturatzeko.

Dena den, orduan ere arazoak izan izaten ziren. Foballa zela eta, esaterako, hitzaldiak edo ospakizunak atzeratu egiten ziren. Bestalde, egoera ekonomiko larria ere pairatu zuen *Arrateak* 1965ean. Nola konpondu zen ez zaigu esaten, baina 1966 urtean hileroko kuota 25 pesetatara igoz, bazkide berriak bilatuz, elkartean emakumeak sartzea onartuz, eta “Operación butaca”-delako baten bitartez – hau da, 1965 urtean, aretoan eserleku batengatik, 560 peseta ordaindu– dirua biltzen jardun zuen elkarteak.

Ezin ahantziko dugu halaber 60ko hamarkada hartan euskararen ikaskuntzak izan zuen piztaldia. J. Oñatibiaren “euskera radiofónico”-ren garaia genuen. Orduan hasi ziren askok ikasi balute! Edota orduan euskararen mundura kezka betarik hurbildu ziren askok gerora ere adre berberaz jarraitu balute!

Aipagarria orduko hizkera. Euskarari lasai asko *vascuence*, *lengua vernácula* eta deitzen zioten. Ildo beretik ikusten da gure hizkuntzak kultur bidea abiatzeko izan ohi zuen oztopoa. Bitxia da esaten dena. Euskaraz egin behar ziren zenbait ekimen bertan behera utzi zituztela irakurtzen dugu. Arrazoia honela dator zehazturik: (...) “Por falta de gente para dialogar en vascuence”. Pentsa daiteke, jendea izan izango zela baina baita ere orduko egoera politikoak ez zuela asko lagunduko inor bere burua nabarmentzera.

*Hurrengo artikuluan, Jesus Gutierrez, eibartar historialari ezagunak, XX. mendeko historia lagun, Eibarri buruzko gogoeta egiten du. Politikagintza eta gizartea eta, ororen gainetik, kulturgintzaren garrantzia gure herrian. Azkenik, Jesusek gaurko egoerari buruzko hausnarketa egitera bultzatzen gaitu. Ez dira bere hitzak alperrik joaten uzteko horietakoak.*

### **EL PASADO OCULTO DE EIBAR. Jesús Gutierrez historiagilea**

En el transcurso del siglo XX, en lo que se refiere a la evolución de las entidades asociativas de Eibar relacionadas en mayor o menor medida con la cultura, se han observado cuatro períodos muy diferenciados. El primer período a analizar comprende los tres primeros decenios del siglo, que se caracterizan en Eibar por una profunda división política y religiosa. El 90% de los habitantes de la villa no saben leer ni escribir, y el castellano es la lengua de cultura que se utiliza en los documentos oficiales y la escuela. De todas formas el idioma hablado por la casi totalidad de nuestros antepasados para su comunicación habitual es el euskera.

En esta época las nuevas opciones políticas luchan por conseguir adeptos entre los eibarreses, y la pugna se centrará fundamentalmente entre los republicanos, los socialistas, cuya agrupación local se fundó en 1897, los nacionalistas, que se organizarán formalmente en Eibar desde 1907, los monárquicos y en mucha menor medida los comunistas, éstos a partir de 1921. En esos inicios del siglo XX los partidos políticos pugnan por atraer a sus sedes a nuevos afiliados y simpatizantes, y un modo referencial es potenciando la figura de las bibliotecas, organizando conferencias, tertulias, mítines con debate, etc. Nuestros conciudadanos abren sus ojos al mundo en éstos centros de difusión cultural en los que se convierten la Casa del Pueblo, el Batzoki, el Centro Republicano o el Círculo Carlista, además de otros lugares como el Casino Amistad de Plaza Barria.

Los partidos políticos ven un filón en ese modelo de desarrollo cultural y se afanan en ampliar su oferta de ocio a otros campos, en especial al deportivo. Así se entiende que el PSOE local organizase entre 1920 y 1923 el “Concurso de Montaña” y que

potenciase la Sociedad Deportiva de la Casa del Pueblo. El PNV también entiende la importancia de potenciar estas actividades y se vuelca en temas como las danzas vascas y el montañismo. Se constituyen en Eibar grupos como “Euzko Gaztedi Igotzailliak” o “Jaiki”, mendigoizales del PNV integrados en “Gipuzkoako Mendigoizale Batza”, y también un colectivo de eibarresas crean el grupo local de “Emakume Abertzaleen Batzarra”.

En definitiva los partidos más representativos intentan crear una trama de organizaciones y relaciones que abarquen diversos campos (cultural, deportivo, folklórico...), para fortalecer así su tejido social y crear una “microsociedad” en la que la opción política da coherencia a una forma global de entender la vida hasta en los aspectos más intrascendentes. De alguna manera socialistas y nacionalistas intentan “socializar” y “vasquizar” respectivamente la sociedad eibarresa. En 1924 nace el Club Deportivo Eibar con el afán de potenciar el deporte y la cultura sin objetivos añadidos de interés político, y poco a poco las organizaciones políticas irán abandonando estos campos mientras el “Depor” se convierte en la opción integradora.

El segundo período a analizar se sitúa entre la proclamación de la República y la Guerra Civil. A partir de 1931 los acontecimientos se suceden de manera tan rápida que los partidos se centran más en las cuestiones políticas que en las culturales, pero a pesar de ello se observan importantes iniciativas culturales en la ciudad. La popularización del cine es un nuevo elemento de interés, además que continúan teniendo gran éxito las obras de teatro y los conciertos en el Salón Teatro de Unzaga y el Salón Cruceta de la Calle Estación. Como muestra de las inquietudes culturales de los eibarreses hay que recordar que durante los siete meses que está estabilizado el frente de guerra a las puertas de Eibar el Batallón Amuategui organiza conciertos con su banda de música y representaciones de teatro.

Tras la caída de Eibar en abril de 1937 se inicia la tercera época a analizar. Es un período triste y oscuro en todos los ámbitos, y la cultura, como uno de los principales enemigos del régimen militar falangista, es un campo al que el poder le presta una

especial atención para utilizarlo en sus intereses represores. Poco a poco los eibarreses van saliendo de su letargo y el “Depor” potencia sus secciones deportivas y culturales, se funda la JD Arrate en 1947, la SD Eibar en 1940 y la SCR Arrate en 1952.

En la semiclandestinidad vigilada del régimen se viven difíciles años en las agrupaciones culturales eibarresas, la oposición al régimen encuentra en el campo cultural una vía de respirar mínimamente la libertad robada por las armas. Los años 60 y principios de los 70 son una época de desarrollo imparable en diversos campos, y cada vez se hace más patente la conformación de grupos definidos por ideologías políticas que resurgen en su afán de encontrar elementos vertebradores en asociaciones deportivas y culturales. Por supuesto todo se desarrolla en la más estricta clandestinidad, pero muchos eibarreses abren sus ojos al mundo en este período. Quien no recuerda los famosos debates del cine-forum de la Cultu, cuando el que la protagonista encendiese un cigarrillo frente a un policía podía merecer un debate de varias horas entre los “troskos” y los “abertzales” que acudían habitualmente los viernes a la noche al cine-forum.

Con la muerte del dictador entramos en la cuarta y última fase del análisis. Es un período de crisis de valores en el que el individualismo se convierte en el referente clave frente a la “socialización” de los períodos anteriores, en los que se vivieron muy diferentes circunstancias, pero que tuvieron como elemento común el sentido de pertenencia al grupo, y sobre todo la conciencia de libertad como colectivo. Los años finales del siglo XX y principios del XXI traen un cambio absoluto de valores. El trabajo sistemático, el esfuerzo, el compromiso con la vocación o el voluntariado son valores en decadencia, se identifican con los “machacas y pringaos”. El bien máximo es enriquecerse, con lo que establecen invisibles redes de clientelismo impulsado por mediocres en la sombra. Muchas iniciativas dejan de ser “políticamente correctas” con los nuevos tiempos.

La transición se cierra en falso, y frente a los valores pasados tendemos a ser más individualistas. Ahora, casados, con hijos, hipotecas de primera y segunda vivienda,

pero sobre todo, confusos y con pocas ilusiones, la generación del tardofranquismo ya no se compromete. La conciencia colectiva nos avergüenza, eran cosas de cuando éramos jóvenes.

A nuestro alrededor vemos cómo los antiguos centros de la cultura, a la par que las ideologías defendidas por los partidos políticos, languidecen. Creo que no es el momento de reproches, pero sí considero interesante recordar de dónde venimos y dónde estamos, así entenderemos mejor a nuestros antepasados y sabremos porqué nuestro presente es así. La generación que creció reivindicando que le robaban muchas cosas quizá algún día reflexione sobre si ella también robó algo a sus descendientes: la ilusión del pasado oculto de Eibar. Merece la pena reflexionar sobre la idea que para tener la conciencia tranquila hace falta, sobre todo, tener mala memoria.

**Jesús Gutiérrez**  
**Historiador**

ARRATE: "LA KULTU". A. Akondia

Askori oroitzapenak ekartzea ez da gustatzen zaiona, zaiguna. Bizitzaren joanak inarrosten zaituela aitortzea izaten baita. Batez ere pentsatzen baduzu zureak irakurriko dituztenak ez direla asko izango: gehienez ere garai hura gustura gogoratu nahi dutenak. Ez noski, garrantziaz gogoratu nahi ez luketenak. Zer pentsa, berriz, Elkartearen sasoi hura bizi ez zutenek?

Gero prozedura kontua zegoen. Iragana nola guregana ez baitago idatzita. Oraingo begi malenkoniatsuetatik egiten bada, sentsiblekerian erortzeko arriskua izango dugu. Hotz hotzean aztertzea ere ez da erraza. Baina egin, egin beharra dago. 50 urte behin baino ez baitira pasatzen.

Orduko grina edo oraingo malenkonia, gauza da inork ez duela ukatuko Kulturalak bete izan duen paper garrantzitsua Eibarko kulturgintzaren historian. Eta betetzen jarraitu nahi lukeena.

Kulturalaren erakarmena, guk ezagutu izan dugunaren 1960ko hamarkadaren azkenean, bi arrazoi nagusik bideratu izan dute. Batak, Diktadura baten eguneroko debekuak erreakzioz sortarazten zuena, besteak biologiarekin zerikusia zeukana. Gazte izatearen grina. Gauzak jakiteko interes nekaezina.

Zine-forum-ak esaterako, nork ez ditu gogoratzen? Proiektzio haiek, aurkezpen eta ondorengo eztabaida; kanpoan, jendaurrean, ezer egitea galerazita zegoen garaia genuen, barruan, berriz, mihina luzatzeko aukera gehiago izaten zen. Baina tentuz. Eibarren beren egoitza zuten agustinoak, ez baitziren urruti izaten; are gehiago, errejimenaren sendotasuna erakutsi nahi balute bezala, harrotasun handiz esku hartzen zuten inoiz pelikula ondorengo ez eta bai, jendeak azkar antzematen zuelarik nor nor zen.

Gero urte problematikoagoak etorri ziren. Frankismoaren azken ostikadak ez ziren samurrak izan. Ordurako askatasunaren inguruan borrokatzen zirenak izen-deiturak hartzen joan ziren. Politikagintza ofiziala hasia zen. Txakurrak txakurdromoan denak belarriak tente lasterketa noiz hasiko egon ohi diren bezalatsu, prest zegoen jendea politikaren harean sartzeko. Etiketak, oraingoan etengabe, barreiatzen hasi ziren. Beste historia bati ekiten zitzaion. Eta bizitzaren paradoxa! Gehien eztabaidatu behar zen garaian bakoitza bere artaldera hurbildu eta itxi egin zen bere ideia eztabaida-ezinen gazteluan. Eta Kulturala moduko leku bikain bat indarra, protagonismoa galtzen joan zen. Baina horrelakoetan esan ohi den bezala, hura beste historia bat da.

#### **A. Akondia**

## HÁREK BAI SASOIAK HÁREK. Jose Aranberri

Aurten gure herrixan asko dira urteurren ospakizunetan buru belarri daguezen Alkartiak. Gero eta gehiago dira, gainera, urtiak (eta ez gitxi) betetzen dittuen Alkartiak, eta horrek erakusten desku zelako indarra dakan bai kulturak, bai kirolak gure herrixan.

Bestiak beste, Arrate Kultur Elkartiak, "Kultur", urrezko ezteiak ospatuko ditu, 25 urte betetzen dittuan Antzerki Jardunaldixak eta eziñ ahaztu ...eta kitto ; Euskera Elkartiaren 10. urteurrena.

Egunotan memorixia denporan atzera eruan dot eta zelako oroitzapen gozuak etorri jatazen bururu ; 60ko hamarkadia. Urte "zoruak", zaillak, baiña ilusiñoz betetakuak.

"Kultu" eta "Antzerki Jardunaldixak" aittatu dittudanez, horren inguruan etorri jatazen rekuerdutak papelera eruatia pentsau dot. Astero, zine foruma zana eskintziaz gaiñera, "Kultun" genguazen "gazte artista" batzuk, irakurritako teatro sesiñuak eskintzen genduazen. Imajinaziñuari eta gure "gaitasun artistikuari " heguak emoten zetsegun, umedadia, nesken lakia eta gu guztion "Baron Dandy" usaiñak betetzen zeben "Kultu"ko zine aretua.

"Plantel de actores " deitzen jakona osatzen genduazenez, gure afiziñuak bultzatuta, orduak pasatzen genduazen ensaiuetan. Eta hara ; Nere sorpresia, sasoi hartan Amaya teatruan eskindu genduan obra bat (gure debuta izan zana), "Historias del Zoo", jua zan astian antzeztu eben Unibersidade Laboralian. Sasoi artan ni izan nintzan "Pedro" personajia eta Alejandro Cristobal izan zan "Jeronimo". 1966. urteko martxuaren 6xan izan zan, domeko goizeko sesiñuan. 22 urte nittuan nik.

Hárek bai sasoiak, hárek ;

JOSE ARANBERRI ULIBARRI



## KULTURGINTZAREN AZPIEGITURA EIBARREN. A. Fernandez

Duela zenbait urte udalbiltzar ez oso ilustratu batek Amaya antzoki bikaina erosteari arrio egin eta, ondorioz, garaje bihurturik ikusi behar izan genuen hura. Gero, hankasartzea zelanbait arindu nahirik suhiltzaileen egoitza Kontserbatorio bihurtu zuten. Txikiegia ezer sendorik egiteko, deserosoegia goxo egoteko, labur esanda inor gutxi asebetetzekoa.

Eta, gauzak horrela, Coliseoren egitasmo amaiezinaz kanpo zer eskain dezake Eibarrek? Ezer gutxi. Antzerki mailan Unibertsitate Laboralak eskaintzen duen esparruak, jende boluntarioa lagun, kemenez eta adorez handi, urrutiegi geratzen da kulturgune batek izan behar duen ustezko eraginetik. Udalgizonek pentsatu behar lukete azpiegituretan inbertitzeak herriarentzat ezinbesteko eskubidea izatez kanpo bestelako etekin materialik ere eman liezaiokeela herriari.

Eibarren, bada, azpiegiturek finkatzen eta sendotzen ez diren bitartean gure herriak ez du aspaldi baten izan zuen bizia izango. Esan izango da gaur egun kulturaren jabetzea, dastatzea etxetik bertatik egin daitekeela. Geroz eta gehiago dira gure etxeetan ditugun baliabideak, zein baino zein hobeak: DVD, Internet etc. etc. Baina guk behintzat kultura beste era batera ulertzen dugu, alegia, taldean gozatu eta eztabaidatzen den ekimen beti aberasgarria. Adibideak jartzen hasita, nork ez ditu amets izari txiki baina halere gizakia adimen eta sentsibilitatez janzten lagunduko duten ekimenak: kalitatezko antzerkia, kafe-teatroa, zine-areto erakargarriak, era guztietako musika ikuskizunak.....

Bada landu beharreko zerbaite Eibarren. Hasteko, gurean ditugun elkarten elkarlana bultzatu behar dugu. Elkarlana diogu eta ez asimilazioa. Koordinaziotik hasita. Behin eta berriro gure artean esan eta berresan baina nekez betetzen duguna. Baina egoera hau aldarazi beharra dago. Ezin egin diogu bada elkarri oztopo! Maiz, egun eta ordu berean antolatu ohi dira hainbat ekimen. Halaber, erakunde publikoen aurrean haiek marraztu

ohi duten kultur norabidean gure ahotsa ere entzunarazteko ezinbesteko zaigu bateratzea.

Gainera, gurea moduko herriak, probintzia baten hiriburu ez izatera, azken hauek baliatu ohi dituzten kultur zirkuito sarri interesgarrietatik kanpo geratzen dira. Eta zertzelada hau ere ez dator gure mesedetan.

Horrela bada, begitanzioak baztertu eta herriko elkarten arteko elkarlana, kolaborazioa edo dena delakoa sustatu behar genuke. Kultur ikuspegitik hain hila ikusten den gure Eibar hau bizkortu dadin.

**A. Fernandez**

## RECUERDOS DE LA CULTU (1972-1975). Mikel Usobiaga

Sobre mi paso por la “Cultu”, puedo decir, que fue una experiencia muy dura e inolvidable. Pero que lo pasamos bomba. A pesar de los trances que tuvimos que pasar, el balance lo considero positivo por la sensación de haber intentado empujar algo la sensibilidad cultural y política de nuestro pueblo. Que lo conseguimos o no, esto es algo que lo tiene que decir otra gente.

Algunas anécdotas siempre quedan:

Nosotros entramos a colaborar en algunas comisiones de la “Cultu” cuando nos vino el presidente (en aquel momento) y nos animó a poner en práctica cosas que en teoría teníamos claras, o por lo menos las discutíamos y cuestionábamos.

Al estar el “Arrate” en plena crisis, consideramos que algo podíamos aportar a Eibar desde nuestra perspectiva cultural y política. Nuestro proyecto, de dar un giro a la sociedad en general, nos animó a trabajar.

Recuerdo que participamos en las comisiones de cultura, cine club, etc. Y claro, a la primera de cambio, con la iglesia hemos topado. A algunos de los componentes de la comisión de cultura, les expulsan de dicha comisión (los antiguos componentes que dejaron morir dicha actividad y que al ver que nosotros entramos con ganas de trabajar, vuelven y montan la bronca, porque varios de los nuevos componentes no hablan euskera, aunque lo estén intentando aprender; al poco, después de dar la nota abandonan la comisión y en paz).

A esta comisión nos tocó preparar varias Fiestas Vascas de entonces. Pretendíamos dar un color más social, más participativo a todo el que quisiera, menos folklórico en una palabra. Nos dieron caña por todos los lados.

Recuerdo un cantante euskaldun (muy bueno) y que todavía está en activo a pesar de su edad. Me dijo que no colaboraba con la Fiesta Vasca de Eibar, porque la organizaban unos rojos españoles

Nos boicotearon los recitales que organizamos para conseguir dinero, porque venía Oskorri y éstos (creo que un buen grupo musical) aparte de otras lindeces y populares “rojeces” musicaban poemas del entonces “olvidado” y hoy ensalzado poeta Gabriel Aresti. En fin, cosas que a veces ocurren, ayer y hoy.

Las sesiones de cine club de los viernes, eran un foro de debate político, en el que nos daban las altas horas de la noche en discusiones bizantinas que la mayoría de las veces no tenían nada que ver con la peli que se diera.

Pero la verdad es que era el único lugar en Eibar que de alguna forma, se discutía de política, cultura, sexualidad, etc. “casi abiertamente”.

Recuerdo que un día, en los debates de los viernes de la “Cultu”, “apareció” un señor muy participativo en ellos y que planteaba algunos temas muy interesantes, pero que estaba convencido de que la mayoría de los males que padecía la sociedad se debían a la represión sexual, y no veas, se dio una temporada de lleno total en el cine forum de los viernes. Fue fenomenal ¡Qué debates!

En general nuestro o mi paso por la “Cultu” fue una experiencia buena y dura. Años duros para aquellos que defendíamos a nivel político el derecho de Euskal Herria a decidir sobre su futuro: la forma política de relación con otros pueblos. Nuestro planteamiento ante los nacionalistas tradicionales y radicales, era el derecho a autodeterminarse, y por este motivo entre otros, se nos boicoteó constantemente y ahora, treinta años después, me suena esto de la autodeterminación.

En fin, años de juventud, mucha actividad, mucha voluntad y a veces también acierto. Pero como vulgarmente se dice “que nos quiten lo bailao”.

Yo, a pesar de todo, lo pasé fenomenal y estoy convencido de que nuestro corto paso por la “Cultu” sirvió para dar un pequeño empujón cultural en Eibar y romper algunos viejos corsés.

**Mikel Usobiaga**

1952-2002 ARRATE KULTUR ELKARTEAK LANDUTAKO ARLOAK



## Arrate Kultur Elkarteak Landutako arloak

Ondorengo orrietan Arrate Kultur Elkartean edo SCR Arrate-n landutako hainbat arlo aipatuko dira. Elkartearen barruko gorabehera batzuk ematen dira. Datuak hor daude norbaitek jakinminik badu. Beste ezer baino lehen azpimarragarria da On J. L. Verak izan zuen presentzia eta ahalguztiduntasuna batez ere Elkartearen sorreran eta lehenengo urteetan. 1952an sortu zen elkarte, baina aurretik “Congregación de Jóvenes de Arrate” elkartetik kulturarekin zerikusia zuten . Urte batzuk lehenago elkarte honetatik, gaur egun bizirik dirauen Juventud Deportiva Arrate sortu zen. Kirol elkarte honek, eskubaloia ezezik futbola, atletismoa eta beste kirol batzuek landu zituen.

Lehendabiziko urteetako arrasto handirik ez izan arren, badakigu 1955 urtearen maiatzean bilerak izan zirela elkarte sortzeko edota 1955 urterako Zuloagatarren kaleko lur eremuan lokalak eraikitzeke lehen gestio eta planetan zebiltzala elkarte eta dagoeneko lurra erosita zegoela. 1957 urtean Martin Churruca SA eraikuntza etxearekin tratuan izan ziren, baina 1962eko urtarrilaren 12arte ez zen lortu lokalak erostea. Data horretatik aurrera lokalak egokitzearen lanak etorri ziren eta urte bete beranduago lokalak inauguratu ziren.

Bere hasieran, eta seguruenik frankismo garaian beste aukerarik ez zegoelako, Elkarte erreljioso bezala eratu zen SCR Arrate elkarte, Junta Rectora delakoaren babespean, baina 1965 urteko asanbladetan, 1964-12-24 Elkartearen legeari egokitzeko estatutoen erreforma egin zen eta Elkarte Zibilaren egitura hartu zuen elkarteak, garai horretako eztabaida gogorak jasotzen dira elkarteko artxiboetan.

Akta zaharretan Arrate Berasaluzek egin dituen bilaketa lanari esker hainbat datu eta ekimenen berri ekartzen dizuegu, horretaz gain gertaeretan parte hartu zutenen kontaerak gehitzen dira, eta oharrek aberastu egiten dituzte berez datu soilak direnak.

Ondorengo ataletan, beraz, bost hamarkadetan Arrate Kultur Elkartean landutako Euskal kultura, Zine-Klub, Musika, Antzerkia, Hitzaldiak, Musika, Margolaritza, Zeramika, Ikusentzutekoak, Argazkilaritza, Bertsolaritza, Jolasak, Txangoak, Dantza eta

Emakume arloetako oroitzaen txiki batzuk ekartzen dira. Azken kapituluan, ordea, gaur egun eta etorkizunari buruzko aipamenak egiten dira.



## EUSKAL KULTURA

Elkartaren ibilbidian, nahiz eta barne produkziñua eta ekitaldi asko eta asko gaztelaniaz izan, euskeria eta euskal kultura leku inportante bat betetzera heldu ziran euskaltzale sutsu batzueri esker. Egoitza zoragarri hori martxan jarri eta bedratzi hilabetera lehenengo pausotxuak emon zittuan umiendako ekitaldixa antolatuz. Urte haretan bertan "Festival Vasco" bat eskeni eta erantzun oso ona jaso ei zan eibartarren aldetik. Sasoi haretan euskera gosia eguala esan gainke, basamortuko ibilixaren ostian oasi koskor batek emoten daben bizipozak eraginda edo. Hirugarren urterako "Cultura Vasca " batzordeko lagun ausartak euskerazko klasiak eskeni zittuezen elkartian bertan eta askogaittik ondu eben aurreikusita eken ikaslegua. Hirurogeitabosteko maiatzian antolatu eben lehen UMIEN EUSKAL JAIA ondoren ospatu diranen oinarri. Gaur egun EUSKAL JAIXA izenarekin ospatzen da Eibarren eta antolaketa, beregain hartu dau Club Deportibuak, Arratia oingo eran laguntzaille dabela.

1965 urtian Juan San Martinen idarokizuna jazoz euskarazko klaseak hasi ziren ematen, 25 bat lagun espero eta 70 agertu ziran. Kontxi Laspiur, Luis A. Aranberri, Xabier Zabaleta eta Imanol Laspiur hasi ziran lanian, Juan Oñatibiaren metodoa eta Umandiren gramatika erabiliz.

Iñaki Larrinagak txistulari eskolaren ardura hartu zuen 1967 urtean, 64 ume talde batekin, 24 mutil eta 40 neska, eta Gregorio Santa Kruz maisu handiak berdina egiten zuen Dantza taldearekin

Gaur egungo Arratiaren barne produkziño osua euskeraz egiten da eta kanpora begira be, ehuneko hirurogetamarra inguru. Azken aldi honetan euskal kultura baino, kultura euskeraz zabaldu nahixan gabizela esan geinke, baina ezer gutxi egin ahal izango genduke harek aintzindarixak buru belarri ekin ez baletze gaur egun normaltzat jotzen dogun euskeria eta inguruko gaixak lantzeari.

## ORAIN DALA BERROGEI URTEKO EUSKALGIROA

### KULTURALEAN. L.A. Aranberri « amatiño »

Arrate Kultura Alkartearen urtehurrena dala-eta, oin dala berrogei urte inguru Kulturalaren inguruan Eibarren bizi izan genduan euskal giroaren barri emotea eskatu jota.

Ni 1963an hasi nintzan Kulturallean, 18 urte nituala, eta bertan parte hartu neban hamar urtean biharrari ekin netsan, ezkondu eta hiru seme-alaba izan nituan. Horrez gainera, idazten be 1963ean hasi nintzan. Eibarko korresponsal modura, Donostiako “Zeruko Argia” astekarian lelengo, “Hoja de Lunes”en gero, ofizioa ikasi arte.

Egia esan ez dakit zer dala-ta, zelan edo zeiniek deituta sartu nintzan ni Kulturallean, baiña gogoratzen naiz ez zala han euskal giro haundirik. Sasoi haretan euskal giroa Club Deportivoan baiña ez zeguan, nik oso ondo ezautzen nebana gainera, Gregorio Santa Cruzekin dantzan ikasten ibilia nintzan-eta mutikotan. Baiña oin ulertzea gatxa izan arren, Deportivoan bizi zan euskal giroa ez zan orduko zenbait gazterentzat “progrea”. Hau da, Deportivoan naturaltasun haundiz bizi zeben euskaltzaletasuna kiroletan, mendizaletasunean eta dantza-taldean nabarmentzen zan, eta gure kezkek, ostera, euskerazko klaseak, hitzaldiak, antzerkia eta jaialdiak, hamarkada haretan eragin ziran kultur-ekintza barrien bidetik zoiazen. Behar bada, Deportivoan euskaltzaletasuna jatorragoa zan, berezkoagoa, demostratu beharrik ez zekana; Kulturalekoa, ostera, kaletarragoa, modernoagoa, militanteagoa, orduan Euskal Herrian indartzen ziharduen kultur-mugimendueri lotuagoa, nahiz eta, zalantza barik, Kulturaleko zuzendaritza Deportivoan baiña askoz be erdaldunagoa izan.

Izan be orduan, sasoi haretan nik ezautu neban Kulturaleko zuzendariak ez zeken bape euskal senik. Ez dot honekin esangura kontrakoak edo ziranik, 1963an Eibarko kaletarren artean normal-normala zan giroaren espillu baiña: 1936ko gerran parte hartu zebenak nausitzen hasita ziran eta gerra-denboran jaiotakoak, ostera, diktadurarik

gogorrean hazitakoak. Zentzun honetan, 1960ko hamarkadan loratu zan gazteriak ez zekan berez bape meriturik, sasoiko lorea izatearena edo izan ezik. Dana dala, Kultureko zuzendaritzak ez zekian, behar bada, zer egin edo zelan egin, baiña gitxienez bazekian zerbait egin behar zala eta hantxe hasi giñan zeozer egin nahian.

### **La Comisión del Txistu**

Arrate Kultura Alkartaren ekintza hainbat batzordetan banatua zeguan gu bertan hasi aurretik: Musikia, Antzerkia, Biblioteka, Hitzaldiak, Zine Cluba etab. Gure lehen ahalegiña izan zan arlo guztietan zeozer egitea, musika euskal doinu be entzuteko, teatro guztia erdaraz ez zein antzestu, liburuak euskeraz be erosteko eta hitzaldiak erdaraz bakarrik izan ez zitezen. Baiña alperriko ahalegiñak izan ziran, eta indarrean egozen batzordeak lehengo lepotik jarraitzeko, hau da erdera hutsean, “Comisión de Cultura Vasca” sortu zan, euskal kultur-ekintza guztiaz arduratu zein.

Gauzak honela, ixa alkatere paraleko bi eragin ziran. Batetik, Arrate Alkatere Kulture ofiziala, dena erdaraz egiten zebana eta, bestetik, “los de la Comisión del Txistu” (holaxe deitzen zeskuen, txistulari talde bat be martxan jarri gendualako), dena euskeraz egiteko bokaziñoaz.

Batzorde haretako partaide fijo samarrak hamarren bat lagun giñan 1965 urte inguruan. Hasierako batzordeburua Jose Antonio Garate; enpresa-gizona zan eta berak ipintzen zeban arpegia guk ipintzerik ez geunkan leketan. Horrez gainera, gure aurrekoen informaziñoa, nolabaiteko herri-memoria, Jose Luis Ugarteburuk eta Jabier Zubiaurrek eskeini zeskuen, gu hasibari giñan-eta. Diruzaina Mila Larramendi zan, San Sebastian Bankuan lanegiten zebanezkero, eta intendentzia guztia Maite Narbaiza eta Mireia Viteriren kontu. Saltsa guztien dinamizatzaile, barriz, Julio Sarasua eta Joxe Mari Ormaetxea “Panpo”. Txistu-maisua Juanito Larrinaga zala, solfeo-irakasle eta beste edozenbat gauza, Maite Aranberri, eta euskerazko irakasle eta ofiziñoako mutila, atzenian, ni neu.

Talde haren balorerik aproposena zerbait egiteko ilusiñua izan zan, meriturik haundiena satsaren pare lanegitea eta suerterik onena parean tokatzea. Oso diferenteak giñan eraz eta moldez, adinez eta formaziñoz, baiña egoera eta giro batek batu gintuan alkarrekin, behar bada sekula gehiago gertatuko ez dan egoera batean.

### **Ekintzarik nabarmenenak**

Ez da erreza hamarkada haretako ekintzen barri emotea baiña irakurlea orduan egindakoaz jabetu dein aittatu beharreko Euskal Kultura Batzordearen eskutik eratu zirala Eibarren orduan Euskal Herrian pil-pilean egozen jaialdirik arrakastatsuenak. Hala “Ez dok hamairu” taldearen kantaldiak, nola Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo edo Xabier Leteren bakarkako lehen agerraldiak. Basarri, Uztapide edo Lasarteren mailako bertsolarien jaialdiak zein zarzuela-saioak, otxote-txapelketak, abesbatzak edo musika-kontzertuak. Bai liburu-azokak, antzerki-saioak eta hitzaldiak, eta baita aizkolari, harri-jasotzaile eta adari-topekak be.

Horrez gaiñera, zer esanik ez, 1965etik aurrera Umeen Euskal Jaia antolatzen hasi giñan, ondiok be urtero antolatzen dana.

### **Anekdotak**

Hamarkada haretako anekdotak kontatzen hastekotan... Xabier Lete eta Lurdes Iriondo kantatzera ekarri nahi izan genduzen batean, telefono bitarteko hartuemonan olerkari eta kantagile zan Nemesio Etxaniz abadearekin egina genkan. Eguna heldu eta, horra nun jakin genduan Xabier eta Lurdes beste herriren batean kantatzekotan zirala. Deitu gentsan apaizari, onartu zeskun hankasartzea berea zala eta, ordurako sarrerak salduta egozen ezkeron, Nemesio bera etorri zan eta, kantatu ezezik, baita sotana eta guzti “txa-txa-txa” dantzan egin be eszenarioan bertan.

Ramon Saizarbitoria idazle gaztea hitzaldia ematera ekarri genduan egunean, barriz, pintxo-pintxo jantzita etorri jakun Donostiatik eta, “Zatixa”n afaldu ostean, Txaltxanera joan eta botella bat txanpaña etara genduan danontzat merkeena zalakoan edo. Ramonek “gorriaren” demostraziñoak egin zeskuazen, Jainkoa bera zeguanik be ukatu eta

txanpaña eraten genduala kritikatu. Gu zeharo kokilduta geratu giñan mokasin gorri garesti askoak zekazen intelektual haren jarrera aittu eziñik.

Beste batean Europako “ezker berriari” buruzko hitzaldi-sorta antolatu genduan, euskeraz jakiña. Hamasei urte inguruko gazte bi etorri jatazen, gaia interesgarria zala eta erderaz emoteko.. Nik erantzun netsen ezetz, horixe nahi genduala hain zuzen be, euskeraz ikasteko interesa erein. Eztabaidan egin genduan eta nik, petral samar, eurak moduko ganorabakoak ez zebela sekula euskeraz ikasiko bota netsen. Handik pare bat urtera, bietako bat etorri eta euskeraz egin zestan: Bixente Martinez zan, Oskorrikoa.

Euskeraz sekula ikasi ez zebana, Arrate Alkarteko “Comisión de Teatro” batzordearen arduraduna izan zan. Gizon ilustraua zanez, bere burua eskeini zeskun euskal antzerki-taldea zuzentzeko, nahiz-eta euskeraz tutik be ez jakin. Erantzun netsan ezina zala antzerki-zuzendaria izatea antzestu beharreko hizkuntza jakin barik eta berak erantzun: “Si fuera una lengua de mayor nivel... quizá. Pero que yo sepa el euskera no tiene ni artículos ni verbos;”.

Berba barik laga ninduen San Agustin kaleko komisaldegiko inspektore bikotea izan zan. Nere etxean atea jo eta Umeen Euskal Jaiaren diru-kontu zehatzak jakin gura. Arazoa zera zan, postulatzen zebillen neska bati poliziak berak sakela kendu eta, denuntziatu beharrean isilik geratu giñanez (ez giñan ba komisaldegira dirua erreklamatzeko joango), ia kontrolatzen ez genduan dirua zenbat eta zertarako ete zen...

Egia esan, dirua ez zan gure arazorik haundiena. Jendea eskuzabal portatzen zan, eta urtero 1.000 pta.koa emoten zeskuen lagunuen zerrenda bat geunkan. Orduko milla pezeta zenbat zan konturatzeko gogoratu besterik ez dago 1.965.ean "Alfista" baten soldata 3000 pezeta zala hilleko.

## **Amatiño**

## LEHEN UMIEN EUSKAL JAIAREN KRONIKA BAT. M.A. Astiz

### **Millares de niños, con trajes típicos llenaron Eibar en la Fiesta Vasca**

#### **Infantil**

Miguel Angel ASTIZ. La Gaceta del Norte 1-VI-1965

En el Día del Niño, Eibar quiso montar, como saben hacer la cosas en Eibar, una gran fiesta vasca infantil en la que los niños deberían ser el destacado relieve de la jornada.

A Eibar fueron grupos infantiles de Lezo, Baquio, Bilbao, Placencia de Las Armas, San Sebastián, Galdacano, Elgueta, Elgoibar, Deva Ondarroa, Deusto y Luchana, de dantzaris que se unieron a los de Eibar. Y grupos de chistularis de la Academia Municipal de Bilbao, de la Agrupación Gazte-Zar de Mundaca, del Ayuntamiento de Villareal y del veterano Luis Torre de Baracaldo. Y otros grupos con tareas concretas en la fiesta, como los humorelariak de Zarauz, el Coro de la misma villa guipuzcoana, versolaris y levantadores de piedra.

Junto a estos grupos concretos llegaron centenares de niños vestidos con los más diversos trajes típicos, apareciendo por las calles desde la reproducción del antiguo miquelete, hasta la lechera, o el año, con una sencillez y una autenticidad, que evitó en todo momento el más mínimo atisbo de carnavalada.

Era el primer Festival Infantil Vasco que se asentaba en Eibar, realizado por la Sociedad Cultural y recreativa de Arrate, y dentro de ella por Julio Sarasua, promotor y gran realizador de la fiesta, hijo de una familia de gran raigambre eibarresa, y que ha prestado a la Villa muchos e importantes servicios.

#### CONCENTRACION, PASACALLES, MISA

Ya para las nueve de la mañana, habían llegado a Eibar muchos centenares, que luego serían millares, de niños de todas partes, y la plaza del 18 de julio, corazón de Eibar, se llenó de pequeños, desde la edad de chupete hasta los doce o trece años, que comenzaron la jornada bailando alegres a la hora del pasacalles, llenas las aceras y los balcones de público, presenciando el singular espectáculo de la grey infantil en fiesta.

A las diez, misa. No pudo celebrarse en el Frontón Astelena, como estaba previsto, y fue una lástima, porque fueron muchos los que no pudieron entrar en la parroquia donde se celebró el santo sacrificio.

#### DESFILE DE CARROZAS

Tras la misa, las calles volvieron a alegrarse con la música del chistu, el tamboril, y los acordeones, y comenzó el desfile de carrozas – hechas por colegios y entidades de Eibar, con auténtico buen gusto – presenciado por una gran cantidad de público. El Jurado otorgo los premios, le primero a “Eskontzia” comitiva de antigua boda vasca del Colegio Aldatze, el segundo a “Arrantzalek”, tema de pescadores, de la Sociedad Arrate, el tercero, a “Ikastoka!” tema de enseñanza escolar presentado por las Escuelas Vascas de Eibar, el cuarto a la carroza de la Hermandad Ixtulaburu, el quinto a la carroza “Euskal-Erri’ko frutuak”, de los Padres Carmelitas, el sexto a “Guipuzcoa” del Colegio Acitain de la Salle, y finalmente el séptimo premio a “Borda’ko pilota jokua”, de un tema de pelota.

#### EL FESTIVAL DEL ASTELENA

En el viejo frontón Astelena eibarres, rebosante de niños tuvo lugar el Festival: los grupos de Zarautz presentaron primero a unos pequeños versolaris, los Hermanos Echave, después a un magnífico Coro que logro justamente enormes ovaciones, luego a humoristas infantiles, se bailaron danzas populares y se termino con un “aureskua” y el canto del “Agur Jaunak”. Hubo un fino detalle: el rezo del “angelus” por un niño vestido de sacerdote, con su bonete y su breviario.

Terminado el Festival, los veintiocho grupos que habían acudido a él, se desparramaron por Eibar, para ejecutar sus danzas por calles y plazas, entre el público que iba y venía de un lado para otro para verlos.

#### LA COMIDA Y EL ESPIRITU DE EIBAR

Los eibarreses lo organizan todo muy bien. No pudieron evitar la lluvia que cayó torrencialmente en algunos momentos, pero pequeños y grandes la aguantaron y ni un solo momento decayó el color, la alegría popular y la música, hasta que el cielo se apiadaba y volvía a cerrar los grifos.

A la hora de comer, los de la Sociedad Arrate, organizadora del día infantil vasco, tuvieron problema: eran quinientos los niños de diversos grupos invitados y había ofrecimiento para darles de comer en casas particulares, para más de mil doscientos.

Hubo que resolver quién se llevaba a los pequeños, y se resolvió que fueran, no a las calles céntricas e importantes, sino a las casas de los eibarreses de los alrededores, a las más sencillas, para dar testimonio social, y satisfacción a los muchos trabajadores que pidieron acoger a los niños, alguno de ellos con solicitud de diez pequeños para comer con los suyos: hermoso mediodía de hermandad cordial brindado por el espíritu eibarres.

#### DANZAS, POR LA TARDE

Toda la tarde, con algunos pequeños intervalos cuando la lluvia caía más fuerte, la plaza del 18 de julio fue escenario de un concurso de baile para niños y un desfile de los grupos que fueron ofreciendo un recital extenso y muy interesante de danzas, también de juegos rurales como los levantadores de piedra de Zarauz, todo un espectáculo que llevo a las cercanías del tablado a docenas de fotógrafos y de aficionados al cine, para tomar vistas del espectáculo.

Y luego, romería: hasta el toque de oración: biribilketas, kalejiras, jotas, “pueros” por todas partes: hasta los mayores se echaron a bailar al son de los chistu de los chavales.

Los de la Sociedad Arrate pueden estar satisfechos. Y Eibar desde luego. La fiesta dejó grato, alegre, imborrable recuerdo.

### Umien Euskal-Jaia, 67.Kronika.

#### Más de una hora duro el desfile de millares de niños.

Miguel Angel ASTIZ. La Gaceta del Norte 9-V-1967

Como la primavera florida que estallaba en los manzanos y en los prados y en las hayas sobre la tierra seca, Eibar se alegró el domingo, por encima de problemas y de ruidos de industria, con millares de niños llegados de todas partes para tomar parte en la III' go Umien Euskal Jaia, la tercera fiesta vasca infantil, que cada edición va creciendo en cantidad y calidad y que organiza con singular y particular esfuerzo la S.R.C. Arrate.

Tras los pasacalles mañaneros tocados por docenas de mini-chistularis llegados de Guipúzcoa y de Vizcaya, y los de Arrate, la misa, a la que asistieron las autoridades: el templo y sus alrededores, repletos de chavales vestidos con todos los trajes, de costa y de montaña, de danza y de trabajo, típicos vascos.

La víspera había habido una gran velada en el Frontón Astelena, en la que cantaron Lourdes Iriondo, Benito Lerchundi, Javier Lete, Julian lecuona, y en el que ofreció un magnífico recital el Orfeón San Anton de Bilbao.

## EL GRAN DESFILE POR LAS CALLES

Con esa manera tan eficaz de saber organizar, típica eibarresa, se montó el gran desfile desde la parroquia a la plaza, con los grupos de danzas y millares de niños, y ocho carrozas muy bien logradas, de motivos vascos, que mantuvo durante más de una hora a todo Eibar y a muchas gentes llegadas de fuera, prendidas del encanto de la demostración infantil.

Abrieron el desfile los chistularis de Villarreal, las mini-autoridades, los dantzaris del Arrate, y después una estampa magníficamente lograda con tipos y trajes – masculinos, femeninos, del pueblo, de alcaldes, bandera – de los valles vasco-pirenaicos de Salazar y Roncal de Navarra, presentada por el Colegio de la Providencia, y que por la singularidad de los trajes, fielmente reproducidos en miniatura, llamó grandemente la atención.

Presentaron carrozas muy bien logradas, de temas vascos – y hasta una de tema espacial -, el Club Juvenil Izarra, los Colegios de Mercedarias y de La Salle, los niños de las Escuelas de Ipurúa, la Empresa Alfa, La Sociedad Arrate, la Ikastola, el Colegio del Sagrado Corazón y la parroquia del Carmen: había concurso, muy bien dotado, cuyo primer premio ganó la Ikastola, con su representación “Sukaldea”, y el segundo Alfa, con “Basarri”; los bohemios pintores vascos, la pelota, la danza, los ferrones, la canción, estuvieron muy bien representadas en carrozas que costaron sin duda mucho esfuerzo artístico, económico y de trabajo, demostrando el nivel de Eibar.

(...)



## GREGORIO SANTA CRUZ, DANTZA MAISUA ARRATE KULTUR

### ELKARTEAN. O. Araolaza

Gregorio Santa Cruz, Ondarrutar dantza maisu handia, talde ezberdinetatik pasatu ondoren 1957-1959 urteetan zehar, Eibarko Klub Deportiboko taldearen arduradun bezala aritu zen.

Eztabaida batzuen ostean dimisioa eskatu zuen Deportiboan. Baina, Santa Cruz ez zen etxean egotekoa eta Deportiboko taldea utzi ostean *Sociedad Recreativa Cultural Arraten* hasi zen dantza talde berri batekin lanean. Ume talde batekin hasi zen lanean eta berehala zituen plazan agertzeko gertu.

Urte hartan bertan, Mendarotik deitu zuten berriz dantzak erakustera joateko. Gerraurrean egona zen bertako dantza taldeak prestatzen eta ia 30 urte beranduago berriz deitu zuten. Estimatu zen dantza maisua. Urtebete lehenago mendarotar gazte talde batek herriko jaietarako zahagidantza prestatu zuen. Santa Cruzen koinatua, Fausto Sanz, izan zuten irakasle. Orain, Bizkaiko dantzak, dantzari dantza ikasteko gogoia zuten eta horretarako Santa Cruz maisuaren beharra zuten. Mendarotarrek gogotsu ihardun zuten eta asteburuetan Santa Cruzek erakutsitakoa behin eta berriz lantzen zuten astebarruan. Urte batzuk beranduago Gurutzpe Kultur Elkartearen babespera pasa zen dantza taldea.

Harreman estua izan zuen Gregoriok mendarotarrekin. Umeekin hasi zirenean ere, joaten zen laguntzera. Arrate Kultur Elkartean zuen taldearekin laguntza behar izan zuenean, mendarotarrek sarri lagundu izan zioten.

1962. urte inguruan Elgetatik deitu zuten bertako dantza taldeari dantza berriak irakasteko. Hilabete batzuk lehenago, Joakin Gastesi apaizak bultzatuta, apaizgai gazte batzuek erakutsi zizkioten lehen dantza urratsak sortzen ari zen taldeari. Elgetarrek, dantza taldearekin aurrera jarraitu eta dantza berriak ikasteko asmoz, dantza maisu baten bila jo zuten. Joxe Arrizabalaga *Pandero*, Santa Cruzen lagunaren bitartez jakin zuten Eibarko dantza maisuaren berri. 12 urtez luzatu zen harremanaren hasiera izan zen hura.

Igande goizetan, Joxe Arrizabalaga *Pandero* eta Juan Larrinaga txistulari bermeotarra lagun hartuta, Elgetara joaten zen Gregorio Santa Cruz. Dantza taldeak berehala hartu zuen gorputza eta urte hartako Santiago egunean aurkeztu zen Elgetako plazan. Hurrengo urtean, uztaila hasieran ospatu zuten Elgetan lehenengo Euskal Jaia. Kalejira eta segidan meza izan zuten Elgetako plazan. Ondoren dantza saioa, Juan eta Poli Larrinaga txistulariek lagunduta.

1964an ospatzekoa zen Elgetako II. Euskal Jaia bertan behera gelditu zen, Guardia Zibilak hala behartuta. Horrelako ekitaldiak antolatzeko entitate baten beharraz eta sortzen ari zen mugimendu hari euskarri bat eman nahian sortu zen Ozkarbi elkartea. Dantza taldearekin batera, beste batzorde batzuk eratu ziren elkarte sortu berriaren baitan.

Elgetan ezezik, kanpoan ere eskaini zituen dantza saioak dantza talde hark. Lehenengoetako bat Orexan, eta baita Debako II. Euskal Jaian ere. Lehenengo taldeko dantzari izan zirenek, hurrengo belaunaldiei erakusteko lana hartu zuten eta horrela 1966an, Gregorio Santa Cruz maisuari Arraten eskaini zitzaion omenaldian, Patxi Basaurik eta Mariasun Agirrek gidatutako taldeak parte hartu zuten.

1965 urte inguruan, Eibarren *Galerías Preciados* ipini eta bertako langileen artean, besteak beste futbol, saskibaloia eta dantza taldea antolatzeko asmoa agertu zuten. Dantza taldea prestatzeko Gregorio Santa Cruz hotsegin eta lanean hasi zen dantza maisua. Hilabete batzuetan entsaiatzen ihardun zuten baina taldeak ez zuen aurrerabide handirik izan.

Joseba Etxeberria mendarotarrak bildutako informazioaren arabera, Mutrikun, Saturrararen zegoen apeztegian ere ihardun zuen Santa Cruzek euskal dantzak irakasten. Apaizgaiak izan zituen ikasle eta apaizgai ondarrutar baten berri jaso zuen Etxeberriak. Ikasketak bukatu eta Ondarroako apaiza Amerika bidean jarri zen misiolari. Urte askotan Ekuadorreko Los Rios misioan ihardun zuen lanean, bertako txiro

eta behartsueri laguntzen eta irakasten. Eta irakatsitakoen artean, apeztegian Santa Cruzekin ikasitako dantzak erakutsi zituen abade ondarrutarrak.

### **Deportibo eta Arrateren omenaldia**

1966an Eibarko Klub Deportiboko kultura batzordeak, *Sociedad Cultural Recreativa Arratek* eta bere ikasle izandako dantzari ohiek antolatuta, omenaldi handia eskaini zitzaion Gregorio Santa Cruz. Urriaren 16an, Gregoriok 68 urte zituela, Arraten omendu zuten. Santa Cruzek ez zuen omenaldirako motiborik ikusten artean eta horrelaxe idatzi zuen Miguel Angel Astiz-ek **La Gaceta del Norten** Gregorio Santa Cruzen omenaldi bezperetan:

*"Este hombre sencillo y vocacionalmente entregado a enseñar danzas vascas, sufrirá su homenaje, que ha aceptado porque le han dicho que tiene que hacerlo para que sirva de ejemplo a los demás, y haya muchos preparadores de grupos de danzas, que sirvan a la conservación de los viejos bailes".*

(Prensa errekorrea. Gregorio Santa Cruzen album pertsonala).

Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat dantza taldek eta bestelako hainbat lagunek parte hartu zuten Arraten eskaini zitzaion omenaldian. Deportiboko eta Kulturalako dantza taldeez gain, bertan izan ziren berarekin ikasi zuten Elgetako eta Mendaroko dantza taldeak ere. 52 urte zeramatzan euskal dantzaren alde lanean omenaldia eskaini zitzaionean. Egun hartako pozik handiena bere bi oinordekok eman omen zioten, berak irakatsitako biloba bik dantza egin baitzuten Arrate gainean.

Eibarren hasi eta Arraten jarraituz, egun osoko egitaraua izan zuen omenaldiak.

9etan Arrate Kultur Elkarteko txistulari bandak kalejira egin zuen Eibarko kaleetan.

10.30etan Arrateko elizan hildako dantzarien (Juan Maria Aguinaga, Lorenzo Telleria eta Begoña Marfull) aldeko meza.

11.30etan Eibarko Klub Deportiboko eta Arrate Kultur Elkarteko euskal dantza taldeen saioa. Beste zenbait dantzaren artean Santa Cruz maisuak sortutako Egoarbitzako makildantza eskaini zuten.

14.00etan omenaldi bazkaria Arrateko Hostalean.

150 lagun bildu ziren Arrateko Hostalean egin zen omenaldi bazkarira. Mahai nagusian, Gregorio Santa Cruz eta Julia Sanz emaztearen ondoan, Pedro Zelaia, Indalezio Ojanguren, David Arriola eta Jose Maria Ormaechea eseri ziren.

Postre garaian, David Arriolak, Klub Deportiboko kultura batzordeko presidenteak, urrezko domina eman zion Santa Cruz euskal dantzen alde egindako lan mardula eskertuz. Paulino Larrañagak grabatutakoa zen urrezko domina. Ondoren Pedro Zelaia abade eta **Eibar** aldizkariko zuzendariak, Santa Cruz jarritako bertsoak kantatu zituen eta Ana Maria Iturriartek bere poema batzuk irakurri zizkion. Gregorio Santa Cruzek, hunkituta, ondoko hitzak irakurri zituen:

*"Jaunak: neure lenengo agurra gaur emen batu zeraten guztioi.*

*Orain dala 52 urte — 1914 urtean eta Orrillaren 4ean — nere aziera dantzari bezela Arrateko zelaian izan zan. Garai artako adizkide ta lagunak oneik ziran: Tomas Maiztegi, Berrizko Irakaslia, orain Ameriketan bizi dana. Gero Castor Arriaga, Saturnino Arriola ta ni. Pedro Aginaga, Felix Lasa, Felix Aginaga eta Patxi Aristorena. Oneik ilda daude eta G. B.*

*Gero berriz, 1929 urtean, Arrate Egunian, etorri nintzan eibartar gazte dantzari talde bategaz, gure Amaxoren aurrean dantzan egitera, baiñan ez dantzari bezela, irakasle edo maixu bezela baiño.*

*Orain dala 52 urte, Arrateko zelaia zapaldu eban dantzari mutiko ura emen aurkitzen da gaur egun zuen aurrean, baiñan ez dantzari gazte bezela, baizik Arrate Bazkunak eta Club Deportivoak jarri zuten nere aldezko omena zelebratzen baizik.*

*38 urtean, egun batzuk alai eta beste batzuk trixe igaroaz, neure izate guztia eman det. Neure biotz eta anima guztiakin batera alegindu naiz lan aztun au aurrera eramaten. Geure erriko enparantza edo plazetan, geure txistu dantza, abesti eta abar, zalbaduaz geure Eibarren izena eta goian jarriaz. Eta Euskal-erriko oitura ederrak gordeaz egin det egin dedan guztia.*

(...)

*Arrate Bazkunari eta Club Deportivoari eta erri guztiari, dan-danori, eskerrikasko eman didazuten medalla onegaitik. Bizi naizen artean ondo be ondo gordea izango da medalla au. Eta ez naiz aztuko omenaldi onekin.*

*Eskerrikasko ba danori... Eta orain amaitutzera noa biotz-biotzezko besarkada sutsu eta maitekor bat emanaz danori. Eskerrik asko".*

(Gregorio Santa Cruz ondarea. Eibarko Udal Artxiboa)

Gregorioren hitzen ostean bazkarian bildutako gehienek beren ekarpena egin nahi izan zuten. Larrinaga anaia bermeotarrek, Poli eta Juanitok, txistu pieza batzuk eskaini zizkioten omenduari. Fausto Sanzek, Gregorioren koinatua eta dantzari eta dantza-maisuak, aureskua egin zuen, eta berarekin ikasitako hainbat dantzari beteranok ere sasoiara erakutsi zuten: Agapito Anitua, Marcelo Aranberri, Manuel Lasa, David Arriola, Vicente Aristondo, Fernando Izagirre, Jose Maria Gil, Jose Maria Urdanpilleta, Carlos Narbaiza, Manuel Egaña, Paco Murua, Ramon Careaga, Javier Perez txistularia, Mikel Larrañaga. Santa Cruzentzat une hunkigarrienetako bat bere biloba bik dantzatu zutenean iritsi zen: Xabier Zubizarretak dantzatu zuen lehenengo, eta ondoren, Arrate Vitoriak Manuel Lasarekin. Hilabete batzuk lehenago dantzatu zuten plaza agerian bi bilobek eta hura gogoratuz honako hau esan zion kazetari bati: "*Uno de los momento más dichosos de mi vida fue al ver bailar a mis dos nietos. Sentí una emoción tan honda que no puedo expresarla con palabras*".

(Prensa errekorrea. Gregorio Santa Cruzen album pertsonala)

Edadeko gizona zen Santa Cruz eta dantzako ardurak beste batzue lepo uzten joan zen. Arrate Kultur Elkartean zuen taldea Deportibora pasatu eta merezitako atsedena hartu zuen. Ez zen, ordea, etxean geldi egotekoa eta maiz joaten zen Deportiboko Kezka dantza taldeko entsaiotetara.

1966ko omenaldiaren arrakasta ikusita, hurrengo urtean horrelako jai bat berriz antolatzen hasi ziren. Herriko dantza taldeak agertu eta aurreko belaunaldietako dantzariak omentzen zituzten. Dantzari Egunak urtero ospatzen hasi ziren modu horretan.

**Oier Araolaza-ren "Gregorio Santa Cruz, 1898-1980 Bizitza eta lanak" liburutik**

## “SOINU-TXIKIAREN ERREPUBLIKA” Koldo Izagirre

Esaten dute Eibarko perratzailea deseatzten egoten zela Intxuzabalekoak noiz azalduko; haiek soinuarekin etortzen omen ziren beti eta, jakina, mailuaren musika baino hots atseginagoa egingo zitzaion esku-soinuarena. Edozelan ere, Jazinto Rivas-ek, Intxuzabaleko Maria Gabilondok semetzako hartua zuen ume txikitxu beltzarenak, oso gazterik erakutsi zituen soinurako zeuzkan dohain apartak. Musikari emana bizi izan zen hil arte, eta esan liteke musikak berak hautatu zuela, bizimodu normal batetik atera eta alproja moduan ibilarazteraino: Jazinto Rivasi buruz kontatzen diren ipuinetako batek dio etxeko idi parerik onena saldu zuela esku-soinu bat erosteko.

Horregatik bota omen zuten etxetik.

Edo etxea jokoan galdu ez zezan, zalea baitzen. Ez zen zurruteroa, bai ordea jokalaria. Eta fede handia zeukan kartetan, kartomantziak egiten egoten zen gauean, bakarrik, goizaldea arte.

Gaur egun Bergaran ezkontuta gozogile den Migel Sagastumek, Mago de Urki izenaz soinu kromatikoaren maisu handia izanak ongi gogoan dauka nola etortzen ziren Eugenio Ubera, Bergaretxekoa, eta Jazinto Rivas, Intxuzabalekoa, bere aitarekin ikastera. Hala ikasten zen orduan, mende hasiera hartan, zer edo zer zekienak ezer ez zekienari irakatsita: ez zegoen akademiarik eta eskolarik. Eta gutxik uste zuten soinu-txikiak halako bide ederra egingo zuenik. Baina Jazinto Rivasek bai, erraztasuna zeukan jotzeko, belarri ona, eta gogo handia. Eibarko bandaren klarinetistarekin hasi zen pieza berriak ikasten. Gero, udan Donostiako Igeldon jotzen zuen bandako zuzendariarekin. Hainbeste piezako.

Jazinto Rivasek, Eibarren Intxuzabal eta Euskal Herrian Elgeta izango zenak, asko zor dio Eibarri. Esan liteke Eibarri esker bihurtu zela edonorakoa, larrekoa zen musika tresna. Gehiegitxo esatea ez ote den, pentsatuko duzue. Ez dut uste.

Eibar errepublika independente moduko bat izan zen urte luzetan Bizkaia eta Gipuzkoa nazionalista eta zintzokoteen erdian, abadeen diktaduratik libre samar, mundu ikuskera zabal eta aurrerazalean, ohituren askatasun sanoan. Mateo de Uriarte abadeak 1935ean eginiko txosten batek dioenez, usteltze moral handi bat ari zen gertatzen Eibarren.

*« Lanik egiten ez duanak  
batere ez jatia »  
Rusian ere langileak  
jarri dute legia*

*Gora Euskadi eta  
gora mundu guztian  
bere izardiakin  
bizi dan jentia*

Trikitilarien eremu tradizionalako leku askotan dantza lotua debekatua zeukaten bitartean, Eibarrek munduko aire berri guztiak inportatzen zituen baltseorako. Salon-Teatro eta Salon Cruceta dantzalekuak zeuzkan, eta 1907 urtean, adibidez, 50 dantzaldi eman zituzten bien artean. Kopuru horri, jakina, aire librekoena gaineratu behar genioke...

Inguru horrek eragin handia izango zuen, zer duda egin, Jazinto gaztearen bilakabidean.

Petratxarri esaten zitzaion etxean, Zezenbide kalean zegoen “casa de lenocinio” arestian aipatu Mateo de Uriarteren hitzetan, hartu zuten pianista Jazinto. Bai, “putetxeko pianista”.

Pianoa, noski, esku-soinua zen: erromeriarako tresna dantza loturako moldatu zuen Jazintok, erreperitorio egokia ikasi zuelako batetik, eta inork ez bezala jotzen zekielako bestetik, tonu desberdin askotan. Eibarrera etorri behar izan zuen Sakabik, trikitilaririk onenarekin ikasteko. Egin dezagun kontu 1935eko kontua dela hori... hogeita bederatzita urte besterik ez zituela, Intxuzabal maisutzat hartua zuten Gipuzkoan.

Gerra heldu zen, eta boluntario ibili zen. Preso egon zen Santoñan, eta baita Cadizen ere, langile bataloietan, beste eibartar batzuekin batera, Txapasta pilotaria tarteko. Pepe Bolunburuk ederki adierazi zuen orduan pasa zuten gosea:

*Izugarrizko bizimodua  
jarri digute oraintxe:  
ondo neurtuta daukagu ura  
ogirikan ez sobrante,  
eskabetxeko sardina latak,  
txorizo ta txokolate...  
Barrido ere kalabazia  
haziko jaku bastante*

Eta liberatu zutenean, Eibarrera jo zuen ostera Jazinto Rivasek. Arruabarrena etxegileak hartu zuen, hark eman zion lana. Soinuzale handia zen, seme bat panderista zuen, eta halako batean soinu berri bat erosi zion Jazintori.

Eta esaten dute hurrengo egunean langile bat gutxiago azaldu zitzaiola lanera Arruabarrenari.

Nik uste dut espero zuela halakorik. Eta jakinaren gainean erosi ziola soinua, bazekielako euskaldunok hobe genuela musikari handi bat igeltsero txar bat baino. Huraxe behar zuen Jazintok, huraxe zen haren beharra.

**Koldo Izagirre**

## ZINE-KLUBA

1964 urteko ekainean Elkarteko komisio batek, Augusto Borderas-en aholkularitzarekin, zinemarako proiektorea prestatzen ziharduen. Handik hilebetera Uztailaren 22 lehen proiektzioa eman zen: Orson Welles-en

“Sed de Mal” (Touch Of Evil, 1958) filmea, Orson Welles, Charlton Heston, Janet Leigh, Akim Tamiroff, Marlene Dietrich eta Zsa Zsa Gabor aktoreekin.

Lehen filme horretara 264 bazkide joan ziren eta sarreraren prezioa, 5 pesetako izan zen Ondorengo filmeak, “El prisionero”, “Tempestad sobre Washintong” eta Sauraren “Los golfos” izan ziren. Hoiengandik ondoren beste ehundaka pelikula ikusteko eta, batez ere, eztabaidatzeko aukera izan zuten eibartarrek Arrate Aretoan.

1966 urtean 109 zinema saio eman ziren. Urte berean, Zinema dokumentala eskeintzen hasi zen, “Casa Americana”-renak, Coca-cola etxearenak edota Kanada-ko enbajadarenak. 1966-67 urteetan umeentzako zinema ematen hasi zen ere.

Arrakastatsua izan zen ekimena eta batez ere zine-kluba, baina jendez gainezka egoteak arazoak zekarren lehen urte haietan “falta de espacio” edo “exceso de público” akteak diotenez. Bestalde, filme batzuk bertsiorekin ere botatzen ziren, esate baterako, Hitchkot-en “sabotaje” pelikula, eta zentsurarekin eta Elkartearen “junta rectora”-rekin ere izaten zuten arazoak, 3-R mailako pelikula larregi zirelako. Baina, giroa ezagutzeko onena ondoren garai haietan zine klub-an buru belarri sartuta egon zirenen idatziak irakortzea.

## LAS CATAUMBAS DE LA DEMOCRACIA. F. Arroitauregi

***Izenburu adierazgarria jarri dio Felix Arroitauregik bere artikuluari. Baina ez du ezertan huts egin. Agintzen duena bertan baitago. Artikulua bizia idatzi du Felixek. Arrate Elkartearen orduko giroa, atmosfera, ezin ederki islatzen da. Pintzelkada azkarrez Felixen begi zorrotzak badaki garai hartako hainbat ñabardura jasotzen.***

Posiblemente a muchos de los que leáis este título os sonará a “música celestial” o “mear fuera del tiesto” hablar a estas alturas en semejantes términos. Sin embargo, queriendo dar una retrospectiva de lo que fue la actividad del Cine-Club, es necesario mencionar la situación socio-política por la que transcurrieron, sobre todo, los primeros años. Tampoco es cuestión de analizar a fondo dicha situación, porque seguro sería parcial e incompleta. Sin embargo sí asegurar que no se daban los más elementales principios democráticos y esto hacía más complicado desarrollar la tarea que queríamos.

No sabría concretar cuándo empezamos con la actividad pero sí que en mayo del 62, la Junta Directiva se plantea el dilema de proyectar películas, como un fin en sí mismo, o iniciar con un cine-club. Para lo primero en la Junta se aducen los inconvenientes de la adecuación de las instalaciones con el costo económico que suponía además de la competencia con las salas comerciales que no sería bien vista. Hasta ahí llega lo transcrito en las actas. Por lo que se puede derivar que se optó por la segunda opción.

Quiénes iniciaron no creo que importe porque además tampoco he podido averiguarlo. Estimo que el núcleo estaría en alguna gente que ya habíamos asistido a algunas sesiones en el Club Deportivo Eibar, proyector 18 mm., pantalla pequeña, operador el difunto Miguel Echeverría –montañero, escalador, espeleólogo y un “manitas”- y me acuerdo haber visto allí la primera película de Berlanga y Bardem “Novio a la vista” que rompía moldes con el cine habitual. También conformarían el grupo inicial personas de profesiones liberales con estudios universitarios afincados en Eibar y que tenían bagaje de sus tiempos de estudiantes. Lo cierto es que la Comisión del Cine-Club era la que más miembros contaba de todas las comisiones –música, cultura, fotografía, etc- y que fue un foco de irradiación de valores cívicos que formaron la conciencia de las virtudes políticas que iban arraigando lentamente en nuestro pueblo conforme el contexto social iba evolucionando por influencia del movimiento obrero, el Vaticano II, la literatura, Juventud Obrera, Cuadernos para el Diálogo, Triunfo, El Ciervo...

Casi desde de un principio se integraron en el grupo también algunas chicas y nos reuníamos todos los lunes para comentar la película del domingo. Eso sí, rotativamente uno cada vez, traía por escrito su crítica y en torno a ella giraba la reunión. Por supuesto era también el lugar donde preparábamos la programación, definíamos los presentadores y asumíamos las tareas que exigía la sesión del cine-club del jueves.

Un problema importante se generaba con la contratación de las películas. Existían dos fuentes: las distribuidoras que nos facilitaban sus catálogos, pero con el inconveniente de que el film estuviera disponible, además de ser este catálogo bastante reducido puesto que debía transcurrir un tiempo en los circuitos comerciales el film para poder pasarlo al canal de los cine-clubs. La otra era la Filmoteca Nacional. Para ello debías ser socio de la Federación Nacional de Cine-Clubs, que lo suyo nos costó, pues el proceso burocrático de la afiliación era complejo. El fondo de películas de esta institución era bastante completo, salvo, claro está, las prohibidas por la censura, pero había bastante donde elegir. El gran problema era que las cintas estaban muchas de ellas muy usadas y sus condiciones de proyección requerían muchos arreglos, y los consabidos cabreos de Prieto y Paco por el tiempo que les llevaba. Con todo programamos ciclos de directores o temas (Orson Welles, Hitchcock, Musical, Nouvelle Vague, Western,...) que permitían llegar a fondo del conocimiento de su cine. Y la verdad, que esto lo hacían en pocos sitios. Fuimos también el primer cine-club de Euskadi que desarrolló en euskera una de sus sesiones –presentación y coloquio- con la cinta “Calle Mayor” de Juan Antonio Bardem. La presentó Jon Etxabe. Guardo de ella una curiosa anécdota. Estaban sentadas cerca de mí dos eibarresas muy de

derechas, que no hacían más que repetir entre ellas , en voz baja, en el coloquio: “esto es nacionalismo...” “no hay derecho; esto es nacionalismo...”

También hubimos de salvar el problema de los presentadores. Pocos de nosotros teníamos tablas para una presentación y dirigir y animar el coloquio. Mucho le debe el cine-club a varios sacerdotes aficionados al cine [ Etxabe, Etxezarreta, Casado,] que afrontaron bastantes sesiones así como a dos o tres personas [Luis Alfaro, Augusto Borderas...] con experiencia en estas lides que colaboraban estrechamente con la comisión . Pero ya en la temporada 65/66 algunos de nosotros habíamos estrenado experiencia ; y partir de ahí, se fue incorporando más gente en estas tareas. La verdad es que había que echarle bastante valor. Buenos apuros pasábamos. Y nos queda la satisfacción, puesto que entonces era inusual, cuando menos en los ámbitos que conocíamos, que la sesión la dirigiera una chica. Fueron más de una. Y al final no es que hiciéramos una escuela de presentadores, mas de Deva, Motrico, Ermua y Ondarroa fuimos llamados y acudimos a sus sesiones.

No faltaron detractores que dirigían sus quejas a la Junta Directiva. Desde que la presentación era muy larga y se hablaba poco de la película y mucho del director (acta 8.12.65) hasta pidiendo cuentas por haber proyectado tres cintas con la calificación moral 3-R (acta 4.10.65). Quizá algunos no sepan que eso del 3-R era la calificación que daba la Iglesia a las películas como orientación moral y la que mencionamos rozaba el pecado. Sabéis el origen fundacional de la Cultu y por Estatutos el consiliario es decir, el cura, era miembro nato de la Junta. Me tocó el descargo y fue de este tenor: eran tres sobre un total de 40 proyectadas en la temporada. Dos de ellas, aduje, de gran valor artístico y fueron presentadas por sacerdotes lo que podía corroborar la faceta defendida por la Comisión. Cierto es que la Junta Directiva nunca que me acuerde, puso obstáculo alguno a nuestra gestión. Para entonces el consiliario no aparecía ya por las reuniones

Si se hubiera llevado un “Diario de sesiones” como en el Congreso, de los coloquios de nuestro Cine-Club, ¡vive Dios! que hubiera tenido poco desperdicio. Como era lógico se traían a colación aquellos temas que en otros medios no se podían tratar: la lucha de clases, los pueblos oprimidos, la represión sexual, la libertad de opinión...En fin que las películas daban para mucho y ciertamente no había que forzar las cosas para que se plantearan estos temas. Había asiduos asistentes, y la mayoría de las veces podías predecir por dónde iban a ir los temas según quien tomara la palabra. Sí que había opiniones encontradas pero nunca conocí que a alguien se hubiera tenido que llamarle la atención por faltar al respeto. Y de la riqueza de estos coloquios quedó impactado un madrileño, José María Pérez Lozano, director entonces de una revista de cine “Cine Estudio” que junto con “Film Ideal” constituían el núcleo de la crítica de cine en España, a quien habíamos invitado a una sesión y no sé con qué motivo. Bueno la cuestión es que en la puerta de la Cultu, en el momento de la despedida, nos dijo: No abandonéis . Seguid. Estas son las catacumbas de la democracia.

Ciertamente aprendimos a ver cine de otra manera. A mí cuando leí en “Film ideal” acerca de una mesa redonda entre varios críticos sobre si un travelling era una postura moral del director, pensé que estaban pasados de rosca. Mi concepto de moral estaba restringido al ámbito del sexo. No concebía la moral como virtud, como valor, como formación del carácter. Y efectivamente un travelling puede ser una postura moral ante los hechos o las situaciones en una narración. Pero aparte de los aspectos técnicos, sí que rompimos con la pasividad. El cine no sólo era diversión. Podía enriquecernos si adoptábamos una visión crítica ante lo que nos presentaban en la pantalla.

La actividad hasta el año 1968 fue bastante intensa. La temporada 65/66 se proyectaron 36 películas. 30 la temporada 67/68. Llevábamos 139 en total y dábamos uno de los índices más altos de España. El año 1967 el precio de las entradas era de 5 pts para los socios y 10 pts.los no socios

Hubo también algunas sesiones dirigidas a los niños, cine-club infantil, pero parece que no hacíamos carrera porque era imposible guardar el orden y el silencio y se desistió continuar. Según las actas, se aprobó la iniciación de cursos de formación cinematográfica, pero para mí es una cuestión que se me ha borrado y no sé si se inició o fue sólo un proyecto.

Para la revista Eibar, nos encargaba D.Pedro Celaya, el resumen del año cinematográfico en el pueblo. Lo hicimos varios años. Quisimos que nos publicara, al margen de esto, un trabajo que elaboró el grupo



sobre una película cuyo título no puedo recordar, pero sí que estaba basada en la novela "Cristo de nuevo crucificado" de Kazantakis, autor de Zorba el Griego. Creo que publicó sólo la mitad porque si lo hubiera sido entero, los problemas con la censura, y con la misma Iglesia, no habrían sido pequeños.

Después del 68, nuevos miembros tomaron las riendas; y a partir de aquí me falta conocimiento de su evolución. Sé que Illarramendi trabajó de lleno en el mantenimiento de la Comisión. Que él y otros mantuvieron vivo el fuego de extender la cultura cinematográfica en nuestro pueblo, debe agradecerseles.

En fin, fueron años ilusionantes. Queríamos un mundo mejor, que la gente tomara conciencia de que la realidad que nos rodeaba adolecía de elementales carencias que obstaculizaban el desarrollo de las personas. Que debíamos impulsar cambios para poder expresar nuestros derechos. Que el cine no fuera sólo un medio de evasión sino la expresión artística que reflejara los problemas sociales y motivara la asunción de posturas que actuaran como revulsivo para ganar espacios de libertad.

Añadir que la mayoría de los que participamos en la Comisión, guardamos en adelante una estrecha relación de amistad que continuo enriqueciendo nuestras vidas.

Y desde aquí también un recuerdo inolvidable para una de las personas que más trabajó en la Comisión y que siguió años trabajando en solitario con la edición de la hoja semanal Gure Herria, donde recopilaba las críticas acerca de las películas que podíamos ver durante la semana. Él era autor, editor y distribuidor de las copias. Un ejemplo de entrega a lo que tanto quería: el cine. Me estoy refiriendo a JESÚS EGUIA.

## **FELIX ARROITAJAUREGI**

*Ondorengo lerroetan gure zine-gizonik unibertsalenak 1970ko hamarkadan Arrate elkartean bizi zituen esperientziak kontatzen dizkigu. Eskerrak eman beharrean gaude Javierri bere eguneroko lanean eten bat egin eta gaztaroko oroitzapenak papereratu dizkigulako. Ez genuke oso altu esango baina ez ote zuen Eibarko zineklubak bere ondorengo bokazioan eragin handia izango?*

## EL FORUM DE LOS 70. J. Aguirresarobe

Aquellos años fueron inolvidables. La resaca del 68 francés, el proceso de Burgos, el franquismo en plena descomposición, la edad que teníamos entonces, generosa en propósitos e ilusiones... Quizás, por todo ello, en todos nosotros convivía una idea de cambio social, de revolución aunque ésta fuera algo utópica. Y en ese pueblo nuestro, Eibar, que se inquietaba por todo, sensible entonces a todo acontecimiento social y político.

Yo recuerdo bien aquellos años de "movida eibarresa", aunque tuviera que viajar de continuo a Madrid donde estudiaba periodismo y cine. Y especialmente el tiempo en que colaboré con el "Cine-club" de la Sociedad Cultural Arrate, que coincidió con una época en la que estuve una larga temporada sin moverme de Eibar.

El cine que se programaba en la "Cultural" era el que rechazaban las salas convencionales por sus contenidos, que suponían poco comerciales. Era un cine diferente, a veces experimental, a fin de cuentas un cine universal que no seguía únicamente las pautas del cine habitual americano al uso. Y era a través de su universalidad donde descubríamos comportamientos sociales de otros países, sobre todo los del Este. También tuvimos ocasión de ver, aunque excepcionalmente, algunas películas que rozaban la censura porque rozaban asuntos de sexo. Y entre tanta apuesta cinematográfica también pasaron por la pantalla de la "Cultural" películas especialmente duras para cualquier espectador, por su ritmo aletargado, por su significación complicada, y que el paso del tiempo las ha convertido en invisibles y "olvidables".

En la mínima estructura de la organización del Cine-forum, a mí me tocó la presentación ocasional de algunos de los títulos. Para ello tenía que estudiar un poquito la filmografía del realizador, de los actores, también - ya por curiosidad personal - del director de fotografía. En la presentación uno se veía también en la obligación de hablar del tema de la película, de lo que trataba, de lo que sugería, para crear expectativas e interés entre la gente para que al final de la proyección surgiera el debate y la discusión. Como las películas las veíamos por primera vez junto al resto de la sala, hablábamos un poco a ciegas sobre ellas, con datos que venían en críticas personalizadas o en comentarios algo banales. Pero, no importaba mucho. Yo recuerdo ahora que éramos como una gran familia. Aunque ese aire de confianza no impedía que pasáramos un mal rato dando la cara a los incondicionales espectadores de nuestro pequeño cine. Pero, ese carácter de presentación y coloquio final fue cambiando, poco a poco y a mejor. Las películas terminaron por ser el pretexto de otros debates mas interesantes. Una vez finalizada la proyección, el forum no dedicaba su tiempo a lo que habíamos visto, sino a otros temas más cercanos, más próximos. La vida en el pueblo, por ejemplo. En aquel Eibar de entonces. También se hablaba mucho de política. Y de las relaciones entre nosotros, entre los jóvenes. (¿Por qué no se folla en este pueblo?, se llegó a oír alguna vez.) Esta nueva tendencia consiguió que el Cine-forum se consolidase como un lugar de debate original y oportuno. Ganó espectadores aunque no fueran espectadores de cine, sino de la vida de un pueblo que debatía los nuevos acontecimientos sociales y humanos ante un cambio político inminente.

Ahora, en este evocación, el Cine-club de la "Cultural" Arrate es una luz de aquellos encuentros apasionados, de aquellas discusiones cuando las horas de la noche ya pesaban en nuestros ojos. Y también, para mí, la posibilidad de un conocimientos de otras cinematografías. Aquellas películas me marcaron humana y profesionalmente y ahora el DVD me está dando la oportunidad de recuperarlas, como una colección personal y especialísima. "Trenes rigurosamente vigilados", "El séptimo sello", "Persona", "Los amores de una rubia", "Rocco y sus hermanos", "Roma, cita aperta", ""Stromboli"...

Un largo etcétera de títulos que pienso catalogar como películas del Cine-club Arrate para que toda aquella aventura no caiga nunca en el olvido.

JAVIER AGUIRRESAROBÉ

## LA CULTURAL ARRATE Y EL CINE-CLUB. Jose Mari Salegi

La vida en "el Arrate ha sido muy interesante en todos estos años; pero para muchos como yo, la vida propia del cine-club será seguramente lo más vital y dinámico de su historia.

Por los años que se fundó y por la gente que lo dirigió fue uno de los cine-clubs más antiguos e importantes de Euskadi.

Aunque en la década de los 70 la vida política tuvo unos aspectos bastante negativos en la vida de "la Cultu" `por lo que significó las guerras y expulsiones entre nacionalistas y no-nacionalistas; entre españolistas y abertzales; es bastante cierto que esta situación tocó en mucho menos medida a la vida propia del cine-club.

Aquí aprendimos lo que es un traveling, un plano corto o un racord. Pero sobretodo aprendimos a ver el cine de otra manera. A ser críticos y a ampliar nuestra sensibilidad ante cada película. Y sobretodo el cine nos servía de disculpa para hablar de política, cosa que en pleno franquismo nos era de una necesidad de primer orden.

En los años 60 y 70 hubo muchas y valiosas personas que dinamizaron el cine-club. Pero hubo sobretodo una que destacó sobre las demás: Zarandona.

Ya podía presentar la película o estar en el debate posterior; que la discusión siempre era alrededor de sus planteamientos. Y estos siempre era la represión sexual. Ya podía ser una película de Bergman, de Buñuel o de Wadjda que lo que nos decía la película y su director a través de ella era que el problema principal y causante de todas las situaciones de los personajes era la represión sexual.

Pero los debates eran muy amenos e intensos; pues los demás teníamos otros puntos de vista muy antagónicos, por lo que la discusión estaba servida. Para terminar hablando todos de política. De lo que vivía el país y nuestro pueblo en él. No hubo en toda esa época ninguna censura ni represión; por lo que las discusiones en el cine-club eran auténticos focos de subversión.

A partir de los 80, los hábitos de los asistentes al cine-club van cambiando. Al personal ya no le interesa, ni las presentaciones ni los posteriores debates, y los miembros del cine-club nos conformamos con dar una hoja explicativa y sobretodo en traer otro tipo de cine que no sea solo el de usar y echar.

Con el local del Arrate deteriorado muere también su cine-club. Puede que vuelva a resurgir o bien en el Arrate o en el Coliseo remodelado; pero lo que no hay ninguna duda es que todos esos años del cine-club sirvieron para hacer escuela y mostrar a una generación a ver el cine con otros ojos; o a abrirlos con criterio personal.

JOSEMARI SALEGI

## MUSIKA

Musikarekin lotura handia izan zuen Arrate Kultur Elkarteak bere sorreratik. Hasierako kontzertuak zuzenean irratiz entzun ahal izaten ziren “Radio Eibar” irratiari esker, beste batzuk baita Radio Loiola-tik erratrismitzen ziren.

1964 urtean Donostiako Caja de Ahorros Municipal delakoak, gaur egun Kutxa bihurtutakoa, pianoa utzi zion Arrate Elkarteari. Kalitate handiko “Gors-Kalman” tipo Kolin piano zen (gaur egun Arrate Elkarteak Udal Kontserbatoriora utzitakoa), eta urte haietan 100.000 pezeta baino gehiago balio izan zuenak.

Pianoa Antonio Sarasuak, Juan Echaniz biolina eta Larrabeiti tenorearekin estreinatu zuten, baina inaugurazio ofiziala Juan Pedrosa-ren kontzertu batekin egin zen.

Musika klasikoaren kontzertuak egitea ohizko aktibitatea zen Arrate Elkartearen eta horrela Narciso Yepes Gitarra jotzailea(1965), Nicanor Zabaleta konpositorea eta arpa jotzailea (1966), Giselle Herbert arpa jotzailea (1965), M.A. Otaegi (1965), Paul Klein pianista (1967), Karl Heinz Schwarz, stradivarius biolin batekin, eta Hans Georz Zanbona pianoan (1968), Joaquin Achucarro (1965),... eta beste askok kontzertuak eskaini zuten Arrate Elkartearen.

Aktibitate hau zela eta, Julio Lapeyrak bultzatuta, 1965 urtean Arrate Elkartearen Sociudades Filarmonicas de España elkargoan sartu zen.

Musika korala kontzertu edo emanaldiak egitea beste atal garrantzitsu bat izan zen elkartearentzat. Besteak beste, Oleskariak ochotea, Coral Cámara de Pamplona, Irungo Coral Ametza, Ochote Allegro, Coro Ameslariak, Coral San Anton,... emanaldiak eman zituzten Arratearen.

Anekdotak gisa gaur egun “Eibar Kantuan” ekitaldiaren antzeko zeozer egiten zela aipatu behar dugu. Horrela, aktetan dioenez 1966eko martxoaren 11an, “Festival Evocación. 30 años de canción popular en Eibar” jaialdia antolatu zen Arratearen eta

zuzenean “Radio Eibar”-ek eman zuen. Bertan, “Los Tropicales”, “Trío Lazpita”, “Trío Los Pibes”, “Los Camperos”, “Jose Arauzo” edota “Coro Ameslariak” parte hartu zuten.

Bestalde, Euskal Kultura Batzordeak euskal musikaren inguruan antolatzen zituen ekitaldiak ere asko ziren. Oskorri, Benito Lertxundi, Urretxindorrek, Estitxu, Idoia Garmedia, Argoitia Anaiak, ... etabar pasatu ziren Arratek antolatutako jaialdietatik 1964-70 bitartean. Kurioso nola dagoen jasota aktetan 1967eko urriaren 11ean egindako bat: “Festival Musico-vocal-protesta”

## ANTZERKIA

Zuloagatarren eraikina zabaldu aurretik badaude elkartean Antzerki lanak antzezten zirenen aztarnak. Baina, Zinema antzokia zabaltzearekin bat Antzerki komisioak indarra hartu zuen. 1965 urtean Arrate Elkartearen Antzerki Taldea sortu zen eta abenduaren 17an lehen emanaldia eman zuten. Paperetan ageri denez, hasierako taldea José Antonio Mendicute, Antonio Sánchez, Fernando Lejardi, José Luis Arrese, Alejandro Cristóbal eta José Alberto Baglietto-k osatzen zuten, baina urtarrillerako 34 pertsonak osatzen zuten taldea.

Ekitaldiak Arrateko aretoan baina baita ere Amaya Antzokian izaten ziren, Antzerki irakorria eta antzetua lantzen ziren eta lehen urte horietan landutako obren artean: A. Sastre-ren “Cargamento de Sueños” eta “El pan de todos”, Arrabal-en “Oración”, Muñiz-en “El caballo del Caballero”, Albee-n “Historias del zoo”, O. Draguw-en “Historias para ser contadas”, eta abar luze bat.

1970 hamarkadaren hasieran Ernesto Barrutia eta beste batzuen eskutik, “Grupo de Teatro Arrate” berria sortu zen, garai latzak ziren, baina gende animatua zen. Hala ere, hazteko, denbora luzez Peter Weiss-en “Marat Sade” antzezlan gogor prestatzen ibili ondoren Gobernadore zibilaren aginduz debekatu egin zen. Taldeak 24 montaia prestatu zituen eta horretaz gain, garai hartako ospe handiko Antzerki talde mitikoak ekarri zituen Kulturaleko Aretora: besteak beste, Sevilla-ko “Mediodía” eta “Esperpento” taldeak edota Madrileko “Tábano” taldea. Gora beherekin, “Grupo de Teatro Arrate”-k 1986 urterarte jarraitu zuen: bere azken emanaldia “Chocholila o el fin del mundo es el jueves” lanarekin, oraindik zabaldu barik jarraitzen duen “Coliseo” aretoko azken emanaldia izan zen, 1986 urtean.

## ANTZERKIA

**I  
EIBARREN JENDE ASKO  
TEATRO GOSIAK  
KONPONBIDE ERREZA**

**HOLAKO AUZIAK  
JASOTZEN AHALEGINDU  
AURRETIK JAUSIAK  
BARRIRO BIDERATU  
HARREMAN HAUSIAK  
GORA EGINGO BADAU  
LEHENDIK ZAN GAUZIAK.**

**II**

**AMAIA, COLISEO  
ARRATE TXIKIXA  
HIRURAK ZIHARDUEN  
GIROTZEN HERRIXA  
“UNI” IZAN DA GERO  
LEKUKO BIZIXA  
HURRIN SAMAR EGONDA  
EZ HAIN EGOKIXA  
ARRATEK, KONPONDUTA,  
BADAKA TOKIXA.**

## BREVE HISTORIAL DEL " GRUPO DE TEATRO ARRATE". E. Barrutia

A principios de los años 70 nace el "Grupo de Teatro Arrate". Ninguno de sus miembros contaba con la formación actoral, ni nada parecido, pero sí con mucha ilusión para hacer cosas. Fue tal nuestra osadía e ignorancia que habiendo caído en nuestras manos, ni más ni menos... que la obra "Marat Sade" de Peter Weiss nos propusimos montarla. Y así lo hicimos. Después de ocho largos meses de ensayos y cuando íbamos a representar, llega el Gobernador Civil de turno y nos comunica: " En uso de las atribuciones que me son conferidas, he resuelto no autorizar la representación teatral. Dicho queda.

A lo largo de los 24 montajes que realizó el Grupo, la censura y las prohibiciones gubernamentales fueron la tónica general; no obstante no pudieron con nuestra ilusión e incluso supimos torearles, presentando a censura textos nada comprometidos, para luego representar la obra que habíamos ensayado, jugándonos el tipo, claro.

Fundamentalmente las representaciones se hacían en el Salón de Actos de la Cultural, se cobraba una cantidad módica, que servía para autofinanciarse el grupo y también para poder traer a Eibar a grupos de teatro míticos, tales como "Mediodía", "Esperpento" de Sevilla, "Tábano" de Madrid, entre otros.

A lo largo de su historia mucha gente pasó por el Grupo de Teatro Arrate, algunos participaban en un montaje, otros en alguno más y a la mayoría ya les bastaba. No obstante desde su comienzo hasta su desaparición el Grupo siempre contó con un equipo de gente fija, un "alma mater" que consiguió mantener la antorcha viva, dando paso libre a toda persona que quisiera participar.

Son de reseñar, también, aquellos Festivales Benéficos (Hospital de Ancianos) que se organizaban anualmente en el Teatro Amaya, repleto de gente, donde el Grupo Arrate siempre tenía su espacio en la primera parte y acto seguido actuaban los cantantes locales, en diferentes estilos.

El Grupo de Teatro Arrate, se disolvió en el año 1986, justo después de representar la obra " Chocholila o el fin del mundo es el jueves". Curiosamente esta obra fue la última función que se representó en el Coliseo, local que permanece cerrado desde entonces.

Ernesto Barrutia



## HITZALDIAK

Orain dala gutxi arte, Euskal Herrixan ezeze, munduko herri gehixenetan ahozko trasmisiñua izan da komunikabide erabilixena, ( ez bakarria horratia), gure aurrekoengandik, bizi izatia tokatu jakun inguruaren gainian, euren ezagutza jaso ahal izateko. Ahozkotasuna aittatzian, badirudi gure aittitta-amamen ipoinak dirala eta gaur egun beste modurik badala, hemen bertan edo mundu zabalian gertatzen diran gauzez jabetzeko. Hala emoten dau eta, egixa esan, inoiz baino informaziño gehixago heltzen jaku egunero, larregi aukeran, dana bihar dan moduan asimilatu ahal izateko.

Gaurko gizarte moderno eta abixadatsuan be, ahozko literaturiak zeresan asko daka . Eta hitzaldixak, literatura horren zati diranez, aintzinako subazterreko trasmisiñuaren papera betetzen dabe, konparaziñuari beruana kendu bihar bajako be. Gai baten gaiñian liburua irakortzia bezin aberatsa izan leike hizlari atsegin eta jakintsu baten azalpenak entzutia. Arratiaren ibilbidean, kultura transmititzeko ahaleginian, zutabe sendua izan da hitzaldixen arloa eta azken hamabi urte honetan be, ohorezko lekua hartu dau, urtian zeharreko ekitaldixak antolatzerakuan.

### **60 hamarkadan izandako hitzaldi batzuk**

- “Confidencias de un escritor” José De Arteche. 1963
- “La música” Vicente Escudero konpositorea. 1963
- “El primer plan de desarrollo económico y social español”. Fernando de la Fuente. 1963
- “Estado actual de la tauromaquia”. José María Busca Isusi. 1963
- “Lo humanos en la valoración de puestos” Pedro Uriarte S.J. 1963
- “El futbol por dentro” Javier Aranjuelo “Erostarbe”. 1963
- “El Deporte visto por un médico” Miguel Maria Echevarren. 1963
- “Los derechos humanos en la Pacem in Terris” Antonio Arza S.J. 1963
- “Nuevo panorama fiscal a través del Impuesto general sobre el tráfico de empresas y la regularización de balances”. Ignacio Aspichueta. 1963
- “El desarrollo económico y el mando intermedio”. Eliseo Ordiñaga. 1963
- “Nuevo Panorama fiscal a través del Impuesto General sobre el Tráfico de Empresas y la regularización de balances”. Ignacio Aspichueta. 1964
- “El Desarrollo económico y el mando intermedio en la empresa”. Eliseo Ordiñana. 1964
- “Alcohólicos Anónimos” . 1964
- “Jornadas sobre actualización de la Rehabilitación” – 8 hitzaldi. Cerame Urcola y Arrazola . 1964
- “Eskola urtearen inaugurazioa”. 1964
- “Experiencias de un Padre Misionero en Assam”. D. Manuel Albizuri.. 1965
- “El paso del paganismo al cristianismo en el pais vasco”. Pedro Mañaricua – . 1965-04-15
- “Conferencia recital”:Gorostidi – Director del Orfeón Donostiarra. Abeslariak Carlos Mungia eta Juan Mª Maiza. (1965)

- “La Iglesia: Sacramento de la Unidad entre los hombres” E. Miret Magdalena “El Ciervo” aldizkariko zuzendaria. . 1965
- “Interpretación teológica de las Religiones no cristianas en la Historia religiosa de la Humanidad” Manuel de Unciti . 1965
- “Evolución de la economía soviética y del sistema capitalista en los últimos años” Fernando de la Puente . 1965
- Ciclo de conferencias sobre El Comunismo. . 1965-12
- Conferencia sobre el Banco de Sangre. 1965-12
- Conferencias sobre Productividad. 1965-12
- Conferencias sobre Cooperativismo. 1965-12
- Conferencias sobre el Cooperativismo, Mondragón Taldeko ordezkariak. 1966-01
- Conferencia tipo Taurino a cargo del Sr. Lozano Sevilla en colaboración con la Peña Taurina. 1966-02
- “Conferencia sobre Capitalismo”. Echebarria Gangoiti. . 1966-04
- “Conferencia de la Fiesta Vasca Infantil” Linazasoro. 1966-05
- “La mujer congoleña”. D. Pedro Celaya. 1966-06
- “Conferencia Taurina” crítico taurino Sr. Selipe. . 1966
- “La cultura, base indispensable para la liberación obrera”. Luciano Rincon. 1967
- “Euzkal jakintzaren problemak” . Juan San Martin, 1967-5-5
- “Euskal hitzaldi zikloa”. Francisco Mendizabal, Fernando Urrutia eta Juan San Martin.
- “Viet-nam” Luciano Rincón. 1967-10
- “La comunicación cristiana de bienes” Manuel Unciti. 1967-10
- “La Cuestión sexual”: Francisco Alberdi 1968
- “Euskal hitzaldi zikloa”. Joan Mari Torrealdai, Ricardo Arregi, Antonio Lekuona eta Juan San Martin. 1968-10
- “Consideraciones en torno a la Encíclica “Humanae Vitae” Jesús M<sup>a</sup> Múgica. 1969
- “Humor Vasco” Iñaki Linazasoro. 1969

### **90 hamarkadan izandako hitzaldi batzuk**

- “Cultura, culturas y demás”. Rafael Castellano (1991)
- “Proiektu, errealitate eta geroa” Pello Zubiria (1991)
- “Bakerako garaia Euskal Herrian”. Jonan Fernandez (1994)
- “Haur Literatura”. Xabier Mendiguren Elizegi (1994)
- “Euskarazko Herri prentsaren geroa”. Jose Mari Zeberio, Jose Ignazio Armentia, Jose Aranzabal (1995)
- “Bakea Euskal Herrian?” Emilio Lopez Adan “Beltza” (1995)
- “Euskalerriaren historiaurrea” Alvaro Arrizabalaga (1995)
- “Euskara Justizia Administrazioan” Nekane San Miguel (1997)
- “Komunitate berri baten sorrera: Villanueva de San Andres de Eibar” Elena Barrena Osoro Deustu Unibertsitateko Dekanoa (1997)
- “Retos de la ingeniería genética Transformaciones e investigaciones” Jon Aristondo Saracibar UPV/EHU ko Irakaslea eta karmelitarra (1998)
- “Antoine D'Abbadie: Euskal Kulturaren aita” Jean Louis Davant. idazlea eta euskalzaina
- “Euskal zinemaren historia txikia” Koldo Izagirre (1998)
- “Mahai ingurua: Bake Prozesuari buruz” Mariano Ferrer, Francisco Letamendía, Carmele Aranburu (1998)
- “Chiapas herria” Manos Unidas (1998)
- “Arte Modernoa eta Guggenheim Museoa” David Sarasketa (1998)
- “Kontrol Soziala eta Informatika”. Joseba Azpilikueta (1998)
- Sendabelarrak , Alfredo Elorza (1998)
- “Cuba Gaur egun”. Norma Oñate: Kubako Instituto Nacional de Investigaciones Económicas (1998)
- “Karnabal poda o disfraz”. Juan Antonio Urbeltz ( 2000)
- “Bertsoaren hipermerkatua”. Iñaki Murua(2000)
- “Gazta eta Ardoa Euskalerrian”. Jesus Oleaga (2000)
- “Urdaibai Biosfera Erreserba”. Edorta Jimenez idazlea (2001)
- “Bertsolaritzaren erronka eta etorkizuna mende berrian”. Andoni Egaña (2001)
- “Tradizioa/Berrikuntza Musikan”. Bixente Martinez (Oskorri), Asier Serrano (Lorelei), Aitor Gorosabel ( Su Ta Gar ), Maite Arroitauregi (Txelista) (2001)

Zer dugu Bertolariengan ikasteko. Joserra Gartzia (2002)

“La ocultación del estado en Euskal Herria”. Tomas Urzainqui (2002)

“Nafarroa eta Euskara” Erlantz Urtasun (2002)

“Kultur elkarten etorkizunari buruzko mahai-ingurua”. AED, Kafe Antzokia, Izarra Elkartea, Arriola Aretoa, Uztarria (2002)

## KULTURALA Zeruko Argian

Ondoren Zeruko Argia aldizkarian agertutako artikulu batzuen zatiak ditugu. Kronika hauetan nabari daiteke nolako sona eta maila zuten SCR Arrate-n antolatutako hitzaldi eta mahai-inguruak.

\* Apirilaren 25ean "Underground Vasco" izeneko saio bat antolatu zuen Eibarko S.C.R. Arrate elkarteko Zine Club delakoak.

Saio honen asmoa gaur eguneko "Underground Vasco" deritzanaren erakusketa bat eskaintzea izan zen, Paulino Viota, Anton Merikaetxebarria, Juan M<sup>a</sup>. Ortuoste, Jabier Rebollo eta Jose M. Bakedano egile gazteen filme laburrak agertarazi zirelarik."

\* Umeen Euskal Jaia dela eta, hitzaldi sail bat eratzen ari da Eibarren, Gipuzkoako ikastolen Elkarte Batzak eskainitako programaren arabera.

Hilaren 13an Mikel Ugalde "Gizarte eta ikastolak" delako gaiaz mintzatuko da. Hilaren 20an, Luis Mari Mujika "Bilinguismoaz" eta 27an, Andu Lertxundi, "Haur Hazkuntza osatuz".

Hitzaldiok S.C.R. Arrate elkartean eratzen ari dira, gaueko 9tan.

\* Sozial- komunikabideak delako izenburu interesgarriean, zenbait elkarrizketa eratzeko da Eibarren, S.C.R. Arrate elkartearen ardurapean.

Editorialez, kazetariak, irratiaz, zinemaz, bertsolaritzaz eta bestez hainbat ihardunaldi prestatzeko da martxo-apiriletan, teknika eta zientzia horiek Euskal Herrian barrena gaur egun zer nolako funtzio eta eragina duten aztertuz, batipat.

\* Hilaren 25ean, Eibarren, Euskal editorialei buruzko jendaurreko elkarrizketa bat eratuko da S.C.R. Arrate delakoan. Joan Mari Torrealdei, Xabier Mendiguren, Mikel Lasa eta Bernardo Atxaga idazleek hartuko dute parte.

Mahai inguru hau, bospasei elkarrizketak osatuko duen sail bateko lehena izango da.

Martxoaren 4ean, berriz, kazetaritza izango da aztertuko den gaia. Mikel Atxaga, Jose Luis Lizundia, Xabier Kintana eta Luis A. Aranberri izango dira jendaurreko elkarrizketa osatuko dutenak.

Hurren asteartean, hilaren 11an, Manuel Lazkano, Jose Mari Iriondo, Jose Mari Aranalde eta Abel Muniategi, bertsolaritzaz mintzatuko dira.

Ondoko asteetan eratuko dira gainerako elkarrizketa, irratiaz, zinemaz eta besteren bat edo bestez.

**Zeruko Argia aldizkarin agertutako kroniketarik**

## MARGOLARITZA – ERAKUSKETAK, LEHIAKETAK, IKASTAROAK

Zuloagatarren kaleko eraikina berria egin zenetik Erakusketa Aretoa izan zuen Arrate Elkarteak. 1964eko azaroaren 1ean Arrate Kultur Elkarteko Erakusketa Aretoa inauguratu zen nazioarteko ospea zuen Jose Barceló-ren erakusketa batekin. Kronikak diotenez jende ugari hurbildu zen erakusketa aretora eta arrakasta handia izan zuen.

Urte haietan Erakusketa aretoa edo programetan agertzen den bezala “Salas de la SCR Arrate”, elkartearen azpiko solairuan zegoen eta ez gaur egun Topaleku Aretoa dagoen tokian, hala ere jende asko hurbiltzen zen erakusketa haietara. Hurrengo erakusketak C.M. CIGANDA akuarelak, Bernard Nolet artista beltzarena, Astrid Paloveska poloniarrena eta Antonio Santafe Largacha-renak izan ziren.

Baina seguruenik arrakastatsuen 1965eko ekainean, sanjuanetan, egin zen erakusketak eman zion maila aretoari. Zuloaga, Elgezua, ... artista famatuen lanekin.

Geroago, Francisco La Pena, Julio García Sanz, Zayas, Agustin. Ibarrola, Lesgues edo UR Taldearen erakusketak izan ziren Arratean.

1967ko azaro eta abenduan Club Deportivo Eibar eta Sociedad Femenina Eibarresarekin batera, SCR Arrate-k “Exposición de Artistas Eibarreses” erakusketa kolektiboa antolatu zuen. Bertan, Ignacio Zuloagaren sei kuadro, Jacinto Olaveren zazpi kuadro, Carlos Elguezua bost eskultura, eta beste 11 artista eibartarren lanak ikusgai izan ziren: Jose Careaga, Fernando Beorlegi, Imanol Elorza, Paulino Larrañaga, Luis Marcano, Eduardo Aldazabal, Alicia Iturrioz, Juan Barrutia, Esther Garmendia, Marcelo Arrizabalaga, Mariaje Uribe de Idoyaga. Arrakasta handia izan zuen Eibarren eta inguruan.

Horrelako erakusketa asko antolatuz, urte dezentetan funtzionatu zuen hasierako aretoak, baina pixkanaka eta elkarte osoaren legez, dinamismoa galdu zuen, eta 80 hamarkadan jada ez ziren erakusketak egiten.

1991 urtean berriz ere erakusketak antolatze lanari ekin zion Arrateak. Urteetan Txolarte elkarteak erabili izan zituen lokalak berreskuratu eta Topaleku Aretoa ireki zen Eibar erdian, Zuloagatarren kalean.

Besteak beste, JM. Agirre Zenitagoia eta Elixabet Eguren-en lanari esker sekulako martxa hartu du berriz ere erakusketen jarduerak. Azken hamar urteetan 150 erakusketatik gora antolatu dira Arrate Elkartean. Urtero, batz bestea, 12.000 lagun inguru hurbiltzen dira Kultureko aretora herriko eta inguruko artistek erakusgai jartzen dituzten lanak ikustera. Nolabait, Topalekuak hasiberriak diren edota beste espazio batzuetara iristeko aukera ez duten artistei plataforma eta azpiegitura bere esku ipintzen die, oinarrizko kultur lana betez.

### **Pintura Lehiaketak: Certámenes de Pintura al Aire Libre**

1968eko irailaren 22an SCR Arrate-k Eibarko I Certamen de Pintura al Aire Libre antolatu zuen eta bertan Eibar, Bilbo, Donostia, Bergara, Barakaldo, Azpeitia, Bermeo eta beste leku askotako 41 artistek parte hartu zuten. Beraien artean Chopitea, Marino Plaza, Angel eta Tomas Goenaga, Agirre Zenitagoia, .... Epai mahaia Fernando Beorlegi, Felix Beristain eta Paulino Larrañagak osatzen zutelarik, irabazleak bi donostiarrak María Begoña Fernandez Oleotan eta Kepa Zafra akuareletan izan ziren.

1969 eta 1970 urteetan egindako lehiaketetan parte hartzeak gora egin zuen eta irabazleak Juan Egiguren (1969) eta Pedro Luis Goiriena (1970) izan ziren. Urte batzuek beranduago Eibarko Artisten Elkarteak, udalarekin batera hartu zuten lehiaketa hauen ardura. Hala ere, urte batzuetan Arrate Kultur Elkarteko Topaleku aretoak lehiaketa hauen sede eta erakusketa areto bezala funtzionatu du.

### **Ikastaroak**

Hasierako urteetan margolaritza eskola funtzionatu bazuen ere Arrate Elkartean, azken urteetan, 1999tik aurrera, Elixabet Eguren eta Leire Kareaga-en eskutik margolaritza klaseak emateari ekin zaio berriro ere Arrate Elkartean.

## LITERATURA ETA LIBURUTEGIA

60 hamarkadan Udal liburutegia martxan zegoen, baina giza eta arte gaiak sakonago landu nahian liburutegia antolatu zen elkartean. Arrate Kultur Elkarteko liburutegia 1964eko urriaren 1ean zabaldu zen, 700 libururekin.

Liburutegia egunero zabaltzen zen 18:30etatik 20:30etara eta liburuak uzten ziren hileroko 3 pezeta ordaindu ostean. Laster beste hainbeste liburu erosi eta bazkideen erabilerarako ipini ziren. Era berean, garaiko aldizkariak erosten ziren: La Codorniz, Zeruko Argia, Cuadernos para el dialogo, Estafeta Literaria, Vida Nueva,...

Hala ere, ikastaroetarako erabiltzen ziren liburuak kenduta, ez dirudi, zerbitzu honek arrakasta handiegia izan zuenik – 60 bat erabiltzaile zuen hileroko – eta, aldiz, liburutegia eguneratua eta ondo antolatuta izatearen kostuak egunez egun handiagoak ziren. Bazkideei galdetu eta zerbitzua mantendu arren ez zen indartu erabiltzaile gutxi omen zeudelako. Zerbitzua martxan jarraitu zuen 70 hamarkadan sartu arte.

Oraindik ere liburutegia egon badago, baina izatez ez da asko erabiltzen eta Udal kultur zerbitzuak hobetu diren heinean ez dirudi etorkizunari begira indarra hartuko duenik. Hala ere, zerbitzu honen izaera adierazi nahi izan dugu.

Liburutegi zerbitzuarekin batera, irakur zaletasuna bultzatu nahian, Ume eta Gazteentzat Literatura Lehiaketak antolatzen hasi ziren Arrate Kultur Elkartetik. 1964 urtean lehen lehiaketa antolatu zen, epaimahia Julio Sarasua, Juan San Martín, José Antonio Mendicute, José Luis Ugarteburu, Jesús Jaureguibarria eta Lorenzo Gabilondok osatzen zuten eta sarituak

Hurrengo urtean, “Concurso Literario” eta “Concurso Literario Infantil” delakoetaz gain, “Concurso de Dichos y Anécdotas” antolatu zen eta Coliseo Antzokian egin zen Euskal Jaialdian Juan San Martín-ek banatu zituen sariak.

Literatura eta irakurketa bultzatu nahi horretan, 1965 urtean Liburaren Astea (Semana del Libro) antolatu zuen Arrate Elkarteak. Lan honek nolabaiteko etekina lortu zuen, eta 1967 urtean 278 lan aurkeztu ziren gazteen lehiaketara. Irabazleak Arantza Saban gazte mailan eta M<sup>a</sup> Jesus Garay umeen mailan izan ziren, eta anekdota gisa, hurrengo urtean epaimahaiak bereak eta bi izan zuen lan guztiak irakurri eta sariak banatzeko, izan ere urrian oraindik sariak erabakitzeke zegoen eta.

Arlo honekin lotuta, alfabetatu gabekoentzat ematen ziren klaseak aipatu behar dira. Arrate Kultur Elkarteko “Comisión de Enseñanza”-k antolaturik, 60. hamarkadan egunero klaseak ematen ziren doan elkartean. Arloari jarraipena eman nahian, Onaindiak bultzatuta, Escuela Social zabaltzeko asmoa izan zen Arratean, baina Gobierno Civil delakoaren oztupoak zirela eta, bertan behera jausi zen proiektua. Aldiz, instituzioen onezpena zuten beste proiektu batzuk, “erregetako desfilea” edo “Cabalgata de Reyes” udalaren laguntzarekin antolatu zuen Arrate Elkarteak.





## ZERAMIKA

Duela 20 urte pasatxo, 80. Hamarkadan, zeramika lantzen hasi zen Arrate Kultur Elkartean. Izan ere, Eibarko Zeramika Udal Eskola “Kultu”-ko Zuloagaterren lokaletan hasi zen lantzen. Kontutan izan Kultur Etxerik ez zegoela Eibarren eta Arrate Kultur Elkarte zela ia azpiegitura kultural bakarra Eibarko herrian.

Horrela, “Kultu”-ko azpiegitura eta lokalak prestatu ondoren, irakasle bezala Esther Galarza eta Asunción Poza zirelarik, pertsona ugari pasatu ziran zeramikaren hastapenak ikasi nahian Arrate Elkartetik, goizez, arratsaldez eta gauez ematen ziren ikastaroetan parte hartuz.

Zeramika Eskola irakaskuntza arloko beste aukera bat bezala planteiatu zen. Zeramika mundua sakondu, aztertu eta profesionalizatu nahi zuen jendearengana iristea zen helburua. Baina, horretaz gain, bere astia sormenlana eta eskulanak landuz igaro nahi zuten herriko pertsonen . etxekoandre, haur, jubilatuei – arte mundua ezagutzeko aukera ematea zuen beste asmoetariko bat.

Eskolaren ardatza zeramika ikuspuntu tekniko profesionaletik aztertzea zen, baina hori ezezik beste arlo batzuk ere lantzen ziren zeramikaren osagarri, esate baterako, Artearen historia, marrazkia, kolorea, e.a...

Arratean zegoen tailerra asignatura zela medio, zeramikan ematen diren urratsak (masa egitea, itxura ematea, lehortzea, erredura eta beiradura) hobeto ezagutzen laguntzen duten arlo zientifikoetara hurbiltzen saiatzen ziren.

Era berean, Artearen historiaren bitartez historian zehar zeramikak izan duen bilakaera aztertu eta ezagutza hori zeramikagintzari nola aplikatu aztertzen zuten.

Irakatsitako metodologia hori nolabait osatzeko, irteerak egiten ziren noizean behin, Museo, erakusketa, Feria eta beste Arte Eskola batzuetara. Nola ez, ikasle eta irakasleen lanekin erakusketak antolatzen ziren.

Arrate Elkartean zegoen Udal Zeramika Eskola 90 hamarkadaraino igaro zuen, geroago urki auzoan kokatu zen, eta urte batzuk beranduago Portalea Kultur Etxea eraikitzearen bat, bertan jarri zuen orain arte den bere behin betiko egoitza.

## IKUSENTZUTEKOAK

Seguruenik Telebista izan zen Arrate Kultur Elkartean jorratu zen lehen ikusentzutekoa. Urte batzuetan Tele-Club-a izan zen martxan Arratean. Astero telebista programazioa iragarri eta banatzen zen bazkideen artean. Kate bakarra zegoen, noski eta egunean bizpauru ordutan elkarteko telebista pizten zen bazkideen aretoan. “Bonanza”, “Esta es su vida”, “Los intocables”, “Historias Naturales”, “Sesión de noche”, footbolla, saskibaloia, “vuelta a España”, kontzertua, boxeoa, eta garaiko programazioa, patxadaz eserita, ikusteko aukera zegoen elkartean.

Laster zinema eta zine-kluba ipini ziren martxan eta dagokion kapitulo eta artikuloetan aipatzen den legez, arrakasta handia lortu zuten.

Denbora aurrera joan ahala diapositiba emanaldi eta, diaporama formatoetan, ikusentzutekoak sartzen hasi ziren Kulturalean. Hasieran, normalean mendiko irteerak diapositiboetan jasozen diapositiva emanaldi haiek. Esatebaterako, 1965. urteko aktak margoen eraberritzei buruzko “pase de dispositivos sobre la restauración de cuadros” edota 1968 urteko akta batean Mendiari buruzko Eli Ojangurenen diapositua emanaldia aipatzen dira.

Geroago ere, 80. hamarkadan bai ekitaldi propioekin edo, sarritan Club Deportiboak antolatutako emanaldiekin: Mendi astearen diapositiba proiektzioak, ur-azpiko taldeak antolatutako asteak, eski taldeak antolatutakoak,...

Ekitaldi hauen arrakastak animatu egin zuen deportiboko jendea eta “*Deporrak*” antolatutako Ikusentzutekoen Asteak sarritan izan zuen bere lekua Kulturalean. Baina zinema-aretoa egoera txarrean zegoen eta Fernando Retolaza bazkideak bere artikuloan jasotzen duen legez, bereak eta bi egin behar zituzten antolatzaileek emandaldi haiek aurrera ateratzeko.

1991 urtean elkartearen ekitaldien berpiztearekin batera, berriro ikusentzutekoak antolatzen hasi ziren elkartean, normalean bidaiekin lotutako emanaldiak eskaintzen zirelarik: Martín Bono, Antxon Gutierrez, Iñaki Osoro, Fernando Retolaza bera,...

1999 urtean Udako diapo proiektzioak antolatzen hasi ziren berriz ere. Kepa Gonzalez diaporametan maisu den eibartarra, Martin Bono, Jose Luis Martinez, Jose Luis Irigoien, Bakarne Elejalde eta beste askoren laguntzari esker, urtero Uztailaren lehen astean, espazio zaharberitu baten, San Andres Elizako Klaustroan, Diapo emanaldiak antolatzen hasi ziren. Gendea asko batzen denez eta emanaldiak gustora hartzen direnez ekimen honekin jarraitzeko asmoa dago.

## AUDIOVISUALES EN LA KULTU. F. Retolaza

En los años setenta y ochenta era habitual que que grupos de montaña se financiasen los viajes contando a la vuelta su experiencia con la presentación de diapositivas.

Aunque la narración era amena, a veces resultava tediosa, ya que una hora a oscuras viendo doscientas diapositivas podían incitar al sueño. Aquellas proyecciones, además de las de otros grupos como el de actividades submarinas, o el de esquí, tenían lugar en el propio Club Deportivo o en el cine-teatro de Arrate Kultur Elkarte.

Por aquella época, en el grupo de fotografía del Club Deportivo trabajabamos las fotografías fundamentalmente en blanco y negro, y aunque en vacaciones hacíamos color, se trataba de diapositivas que normalmente se quedaban archivadas.

A finales de 1988, y a iniciativa de Kepa Gonzalez, surgió en la sección de fotografía del Club Deportivo la inquietud por realizar las proyecciones de diapositivas de forma más dinámica.

Se trataba de proyectar las imágenes combinando la secuencia con fundidos y acompañando con música. Para ello se compró en el Club una unidad Reflecta de dos proyectores con el equipo de música y grabación de fundidos.

Posibilitamos una narración de imágenes con diferentes tiempos de exposición acompasados a una música grabada previamente.

Las primera grabaciones, verdaderamente artesales costaban bastantes noches, especialmente debido a las exigencias perfeccionistas de Kepa. Martín Bono "Jauja" se unió a la experiencia y para mostrar los trabajos se pensó en la realización de una semana de proyecciones.

Los primeros trabajos era viajes, para luego seguir con temas concretos o sólo imágenes.  
En 1989 y con la colaboración del Departamento de Cultura del Ayuntamiento iniciamos la andadura de la primera AUDIOVISUALAREN ASTEA - SEMANA DE AUDIOVISUALES  
El cartel anunciador lo diseñó firmó Martín Bono.

Para realizar las proyecciones de aquel año y ante la falta en Eibar de una casa de cultura o una sala municipal, contabamos con el, por aquellos años ya bastante deteriorado, teatro de la Kultu, Arrate Kultur Elkarte. Frío , goteras, sillas rotas, ..patético....todo un drama.

Además de Kepa y Martín la primera semana invitamos a Ángel Rodríguez, Mikel Garaikoetxea , Javier de Juanes y Mari Abrego.

Para las condiciones del lugar y nuestra inexperiencia, todo un éxito y eso nos animó a seguir otras 10 temporadas más.

El año siguiente el cartel anunciador era de Iñaki Larrañaga. El éxito del cartel fué igual o mayor que el de la proyección, de tal forma que desaparecían los carteles, nos quedábamos sin publicidad, y los que quedaban los tuvimos que ir recogiendo al final de la semana para compromisos.

Presentaron trabajos Txema Cámara, Javier Carballo, Javier Juanes, Rafael Sevilla, Guillermo Fernandez ,tristemente ya fallecido y que vino desde Valencia,y el incombustible Kepa.  
Las siguientes semanas se realizaron en Portalea, que prácticamente inauguramos como sala de proyecciones, y sensibles mejores condiciones.

Es una pena el tiempo que se ha perdido sin poder utilizar esa céntrica sala de la Kultu.

Para nuestro bien, el descubrimiento del claustro de San Andrés y las proyecciones de audiovisuales de verano de la Kultu en dicho lugar. No hay que perdérselas!

**Fernando Retolaza.**

## ARGAZKILARITZA

Indar askorekin ez bada izan ere, argazkilaritzak beti izan du bere presentzia Arrate Kultur Elkartean. Eta ez erakusketen bidez bakarrik, - lehen argazki erakusketa 1965.eko abenduan izan zen Kulturalean -, baizik eta lehiaketa eta aktibitate bezala ere.

Esatebaterako, 1966. urtean Ekainaren 13tik 21etara, hain arrakastatsuak ziren Euskal Jaien ondorioz, argazki lehiaketa eta erakusketa izan ziren Kulturalean. Hala ere, badaude beste lehiaketa batzuen berri: 1968 urte famatuaren azaroan, gabonetarako Argazkilaritza Lehiaketa antolatu zen. Garai hartan Agfa-Gevaert SA etxeak bere pelikula markarekin ateratako argazki onenari saria ematen zion.

Bestalde, hasieratik argazkilaritzak tokia izan du erakusketak antolatzerakoan, eta gaur egun ere Irigoien, Ronco, Loiola, eta beste argazkilari, aurten Argazkilaritzaren Hamabostaldia antolatu da. Herriko areto ezberdinetan (Topalekua, Udala, Untzaga plazan, Ambigu, Kultu Taberna) argazki bildumak izango dira ikusgai.

1997 urtetik aurrera, Arrate Kultur Elkartek urtero “Eguen Zuri argazki Lehiaketa” antolatzen du. Lehiaketa irekia eta librea da zaletu guztientzat. Aurten VI edizioa izango da.

Partehartzaile bakoitzak aurkeztu dezaken argazki kopuru gehiengoa lau (4) da eta argazkiak edozein tamainetan, koloretan nahiz zuri beltzean, aurkez daitezke. Hori bai, soportea edo passpartout-a izatea eskatzen da.



## BERTSOLARITZA

Eibar bertso-plazia danik ezingo dogu serixo esan nahiz eta bertsozaliak izan , izan diran eta badaren egunotan be. Horrek ez dau esan nahi saiorik egin ez danik Eibarko partian basarri giroko jaixetan eta jarraitzalle ugarirekin gainera. Eibarko kalian be antolatu izan dira bertso ekitaldixak eta jendiak ederto asko erantzun izan dau gehixenetan.

Tarteka eta ondo pentsauta ekarri bihar dira halan be, bertsozariak gure herrira, batez be jaialdi modura, ikusle eta entzule askorentzako asmotan. Ez da errez saltzen dan produktua gurian.

Elkarteko "Cultura Vasca"-ko batzordekuak jaialdixa prestau eben 1.965ko Azaruaren 26rako eta bertara, sasoi haretan punta puntan ebizen bi bertsolari haundi Uztapide ta Basarri konbidatu zittuen gero Coliseo aretuan burutu zan ekitaldira. Orduan be goi maillakuak ekarri bihar, jentia juan zekixuen nahi bazan. Gaurko Arratiak, apaltxuago bada be, testiguari oratu eta bertso-bazkarixak antolatziari ekin detsa, elkartian bertan, hazixa erein nahixan edo, eta urtetik urtera, hirugarrena aurtan, estimaziño gehixago hartzen doiala emoten dau.

Lehenengo intentua, erantzuna zelakua izango zan ez genkixan eta, 2.000garrenian egin genduan eta hogetamar lagun inguru batu genduan bazkaltzen, gauza askotarako erabiltzen dogun goiko salan.

Bertso eder askuak kantau zezkuezen Iñaki Murua eta Angel Mari Peñagarikanok eta bigarrenerako, jentia animatze aldera edo, punta puntako bi bertsolari ekartzia pentsatu eta egin egin genduan. Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak ezin hobeto bete zezkuen bazkalostia euren bertso ederrekin eta orduangua labur geratu jakunez, 2002rako berbia hartu gentzen eta bai etorri be. A zelako bazkalostekua eskeni zeben !! . Bazkaltzera batu giñanok, badirudi bertso-lan hori asko estimau genduala, ze, bertsozariok, giro

onaren berotasunian, euren burua eskaini zezkuen urrengorako eta baita guk berbiari oratu be.

## JOLASAK

Gaur egun alde batera utzita badaude ere, saloiko jolasak bere garrantzia izan zuten Arrate Elkarteko bizitzan. Batek baino gehiagok gogoratuko dute Kulturalean antolatzen ziren Ajedrez, Damas, Mus, Domino, Tute, Billar edota Mahaiko Tenisa .

Beharbada, Billar jokoak izan zuen hedapen edo maila handiena Kulturalean. Horrela, Espainako Txapelketak egin ziren Arrate Kultur Elkartean. 1964ko 24tik 29ra, Campeonato de España de Billar de 2ª Categoría, elkarteko Areto nagusian egin zen. Antza denez, Txapelketarako TVE eta garai hartako NO-DO-a izan ziren Arratean. Urte berean, “Billar de Fantasía” delakoaren espezialitateko Munduko Txapelduna, Joaquin Domingo-k erakusketa saioa eskeini zuen.

Pare bat urte beranduago, 1966ko martxoan Campeonato de España de Billar de 1ª Categoría jokatu zen elkartean, eta hor ere Telebista eta aipatutako zine dokumentala izan ziren.

Urte bereko maiatzean, Club Deportiboarekin batera antolatuz, Espainako Xake Txapeldunak 20 partida simultaneoak jokatu zituen elkartean. Xake ikastaroak antolatzen ziren urte horietan eta horretarako tableroak erosi ziren: 20 tablero, 40 pesetagatik!

Dena den, ez zuen asko iraun jokoen komisioak 1968 urterako jende faltan zegoen eta nahiz eta barne aktibitate bezala beste urte batzuk mantendu zen, pixkanaka arlo hau albo batera geratu zen elkartean.

## IKUSI ETA IKASI

Illunaldi luze baten ostian, elkartia berbiste sasoiari daguala esan leike eta inoizko malla alturik lortu ez badau orainarte, bere apaltasunian kultura bidiak txirritxirri ebaten diharduala ez da ahaztu bihar. Sakona jota gero, gora urtetzia gatxa izaten da baina goixan agiri dan argittasunak gora eitteko indarra emoten dau eta, gaur egun, gaina hartzeko bidian gara.

Hasierako urtietan eskeintzen ziran kultura alor gehixenak lantzen dira ointxe be Arratian nahiz eta oiartzun gutxiago izan edota jendiaren erantzuna hurrixagua gertatu. Badira, halabe, pare bat sail azken hamar urte honetan martxan jarri diranak eta bazkide zein ez tiranak gustora parte hartzen dabenak. Urriñeko bidaiez edertutako diaporamak esaterako, jende aldrak batu izan dittu San Andres Elizako klaustrora, Uztaileko lehenengo astian juandaneke hiru urtian.

Bada beren berez "IKUSI ETA IKASI" izenez sortu dan batzordia, Euskal Herrixan edo inguruetan ezer ganorazkorik badago kultura munduan, jua eta nahi dabenari erakusten ahalegintzen dana. Urtian bi edo hiru urteera izaten dira eta hainbat paraje ezagutzeko aukeria emoten dabe hasi iri nagusiñetatik eta herri koskortxuenetaraiño. Burdin Aroko La Hoya edota Guggenheim erraldoi modernua; Magdalenense garaiko Altamira ta Isturitz edo Donostiako Zientzia Museua; Erdiarako Biana edo naturak sortutako Pozalagua bitxi ikusgarrixa, eta aittatzen luze joko leuken beste asko.

Guzti hau hitzaldixekin hornitzen da nahiz eta honek irteerak baino arrakasta hutxiago daken, hizlaririk onentsuenak ekarritta be, nekez erakartzen dabe ta hogetamar lagunetik gora. Ordiazko zeozer billatzen hasi biharko dogu antolatzaile zein bezeruen gozamenerako izan deiña.

## DANTZA. Dantzatu, dantzatu madarikuok!

Esan da aurrerago Dantza arloa landu zela Arrate Kultur Elkarte, Euskal Dantzarena hain zuzen ere. Baina, azken urte hauetan atzerriko dantza batzuk modan jarri dira, batez ere Karibetik etorritakoak, saltsa, merengea, batzata eta abar.

Orain dela hiru bat urte Arrate Kultur Elkarteak horrelako ikastaro batean parte hartzeko aukera bere kideei eta nahi zuen jendeari eskaini zien. Deialdia arrakastatsua izan zen, eta urte hauetan hainbat talde aritu dira dantza klaseak hartzen.

Ikasle kopurua, mugikorra izan arren, berrehun pertsona inguru hartu duela parte, esan dezakegu. Ikasleen artean mota guztietako jendea elkartu da, neskak, mutilak, zaharrak eta gazteak.

Ikastaro guztiak ostiraletan edo larunbatetan izan dira, astean behin eta ordu eta erdiko iraupenarekin.

Ekintza honetan parte hartu duen jende gehiena oso gustura ibili da eta aurten, 50. Urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldien artean, irailean dantza erakustaldi bat antolatu zen, bertan saltsa, merengea, foxa eta tangoa izan ziren ikusgai. Jende asko hurbildu zen Txal-txa zelaira, eta denen ustez oso interesgarria izan zen. Azken unean jendeak ere gogoz hartu zuen parte, ekitaldia jaia bihurtu zelarik.

## EMAKUMEA

### ¡LAS NOVIAS DE LOS SOCIOS! . Arrate Berasaluze

O el “elemento femenino” son las denominaciones que más frecuentemente aparecen en los Libros de Actas y Acontecimientos Culturales, para señalar a las MUJERES.

A nivel cultural, no cabe ninguna duda del gran esfuerzo de los programadores que no escatimaban esfuerzos y fueron capaces de traer a personalidades y grupos de primerísima línea. Nuestra Cultu (así se escribía entonces) estaba en boca de todas las Sociedades Culturales del momento y era envidia (envidia sana) de muchas de ellas.

Con cierta tristeza tenemos que reconocer que la Cultu, pionera indiscutible en cuanto a programación cultural y social se refería, fue un tanto rácana en el reconocimiento de los derechos de las mujeres.

Y con gran alegría tenemos que indicar que sin embargo había un GRUPITO PELEON de socios que no paraban de plantear el problema continuamente, bien en Juntas Rectoras o Juntas Directivas o en las propias Asambleas Ordinarias y Extraordinarias, hasta que LO CONSIGUIERON.

Y por encima de todo tenemos que destacar la labor de las propias mujeres de la época que socias o no socias, con derechos reconocidos o sin reconocer, fueron muy generosas a la hora de colaborar, ayudar y participar en todo lo que se organizaba. Se colaban de una u otra forma en todos los actos y fueron quienes forzaron los acontecimientos hasta obligar a la Junta Directiva de 19 Julio 1965 a escribir en su Acta correspondiente:

“... gracias a la presencia del –elemento femenino- la Junta Directiva y por deducción la Sociedad se ha salvado de pérdidas económicas importantes... por la poca asistencia masculina...”

Se reconoce también la gran aportación de las “jóvenes chicas” en la organización de la 1ª Fiesta Vasca Infantil o los conciertos de San Juan, llegando a afirmar que fueron la CLAVE del éxito de organización.

En las Actas nos encontramos con auténticas joyas. Veamos:

El Presidente pide, extrañado, explicaciones sobre los comentarios que ha oído de "Admisión de ambos sexos, celebración de bailes, etc..." Y COMENTA: "Pensando en el futuro de la Sociedad y previa consulta a sacerdotes sobre estas materias y para dar vida a la Sociedad, debía admitirse la entrada de jóvenes de ambos sexos, tratando de dar un sello característico de sanas costumbres y sin temor a que se pueda convertir en un centro pagano" (9 Mayo 1962 - JUNTA GENERAL)

En 1962 se dió una gran polémica para autorizar la entrada de mujeres en los locales. La Junta Directiva dice que sí. La Junta Rectora dice que no.

“Actualmente en nuestro pueblo las sociedades masculinas existentes –creemos sin excepción- limitan exclusivamente al sexo varón el derecho de acceso. Ello implica evidentemente manifiesto perjuicio al fomento de las relaciones matrimoniales en la vida pública”

“Entendemos, así mismo, que cualquier limitación impuesta inicialmente afecta directamente a la persona del socio, que es quien se ve imposibilitado de acudir a la Sociedad acompañado de las personas de su agrado o ambiente”. (12 Diciembre 1962)

En el mismo año, el Sr. Obispo manda una carta a D. José Luis Vera rogando la custodia de los fundamentales principios de moral y espíritu... que debe presidir la vida de los locales.

Se quejan unos socios diciendo que no es cosa del Sr. Obispo el decidir si entran las mujeres o no.  
Votación: Que si 31 - Que no 12 ( acta del 22 Diciembre 1962)

En 1963 era inminente la apertura de los nuevos locales y D. José Luis Vera escribe una carta a la Sociedad donde expone su criterio de:

“La zona de bar que sea pública”

“La zona contigua con tolerancia de acceso a esposas y prometidas de socios, acompañadas de los socios SOLO JUEVES Y DOMINGOS” (Acta de Agosto 1963)

En 1965 se comienza a hablar de la posibilidad de entrada de SOCIAS FEMENINAS. Así, independientemente de lo que diga la Junta Rectora, la Junta Directiva y comisiones admiten la entrada de mujeres, quienes de hecho ya colaboran y se dará constancia de un hecho consumado. (Acta de 21 Junio 1965)

En noviembre de 1965, la sociedad pide consejo al Sr. Vicario para “la admisión de socios femeninos”, quien afortunadamente dice si”

El 16.12.1966 se celebra la Asamblea general Ordinaria y Extraordinaria (Asisten la Junta Directiva y 162 socios), con un punto importante “ADMISIÓN DE SOCIOS FEMENINOS”

La Junta Directiva siempre está a favor, aunque basado en criterios prácticos: las mujeres de hecho ya están colaborando, ya entran, ya hacen...

Las reticencias vienen con argumentos tales como “¿Ya se ha calculado el número de mujeres dispuestas a asociarse? Y proponen un plazo de admisión. O preguntan si se puede realmente por Ley, si no hay ningún impedimento en el reglamento...”

Analizando con cierta profundidad las Actas en ningún momento encontramos argumentos a favor de la incorporación de la mujer como SOCIA, basados simplemente en que se trata “DE UN DERECHO DE LA MUJER A FORMAR PARTE DE ESTA SOCIEDAD”. Porque la sensibilidad todavía no daba para tanto. Eramos el “elemento femenino” “las esposas” “las novias” “socias que se necesitaban para aumentar los dineros” o las “jóvenes chicas”

Pero era una realidad visible y palpable que las mujeres estábamos ahí, presentando películas, haciendo teatro y teatro leído, organizando la biblioteca, ayudando en la Fiesta Vasca, como profesoras de euskera, participando en las conferencias, etc. Etc. Y por fin nos admiten como socias en Diciembre del 66. En los años 66 y 67 se hacen socias 194 mujeres. Y llegamos a la Junta Directiva en Diciembre del 67, por medio de tres mujeres y una cuarta en Febrero del 69. Y así sucesivamente hasta nuestros días.

Afortunadamente en este terreno y en todos los ámbitos de la vida, el correr de los tiempos pone las cosas en su sitio y las mujeres estamos llegando a todos esos rincones que nos han sido vetados en otros tiempos. Reclamando nuestros derechos y asumiendo nuestras responsabilidades.

**Arrate Berasaluze**

## **KOMUNIKAZIOA**

Zalantzarik gabe, kultur elkarte batentzat bakide eta herritarrekiko hartueman arinak izatea beharrezkoa arloa da. Are gehiago bete beterik Informazio eta komunikazio gizartea deitu den honetan murgilduta gauden garaia hauetan. Baina ez da gaurkoa premia hau, eta laister ohartu ziren Arrate Kultur Elkarteko kideek komunikazioa, prentsarekiko harremanak eta harreman publikoak landu behar zirela.

Horrela, 1965 urteko urrian “Comisión de Prensa y Relaciones Públicas” sortu zen Arratean. Garai hartako herri prentsako korrespontsalekin (El Correo Español, El Diario Vasco, La Gaceta del Norte, La Voz de España, ...) bilerak antolatzen hasi ziran. Denak ez zuten emaitza honak izan urte batzuk beranduago elkarteetan kexak agertzen direlako egunkariren batek – eta ez dugu izenik emango – ganoraz ez zuelako elkartearen oharrak argitaratzen.

Kuriositate bezala, esan beharra dago 1962eko apirilaren 18an, lehen telefonoa ipini zela Arrate Kultur Elkartearen.

Bestalde, Eibartik atera eta bailarara zabaldu nahian inguruko herrietan elkartearen ordezkariak izendatzea proposatu zen urte berean. Ez dakigu noraino hedatu ziren Arrate Kultur Elkarteko ordezkari hauek, baina Eibarrekin hainbeste hika mika sano duen Soralezeko herrian, badakigu 1966 urtea hasieran Juan M<sup>a</sup> Altuna izendatu zutela “como representante de la Sociedad Cultural Arrate en Placencia”.

Urteetan Kulturaleko lokalak prentsurrekoak emateko erabiliak izan dira eta egun ere, berdin gaia, sarritan erabiltzen dira horrelako ekimenetarako.

1995 urtean elkarteak Kultuberri izeneko hiruhilebetekaria argitaratzen hasi zen. Baina, gaur egun komunikazio tresnak aldatu eta berritu egin dira, eta Elkarteak erronka berriei aurre eginez, ohizko oharrak eta prentsurrekoak eskaini egiten ditu baina Informazio Gizarteak eskaintzen dituen tresnak erabiltzen hasia da. Horrela Kultuberri



boletina edo newsletterrak elkartearen berri ematen du eta edonork kontsulta dezake Internet-en publikoak diren Kulturreraren artxibategiak:

<http://groups.yahoo.com/group/kultuberri/>

Bestalde, Eibar.org Teknologia berrien erabiltzaileen Elkartearekin parte izanik, Arrate Elkartek bere espazio propioak ditu Internet. Kulturalako Webgunea. Bertan ekitaldien berri, argakiak, dokumentuak, hitzaldiak etabar aurki daitezke, baita liburu hau ere. Helbideak:

<http://www.geocities.com/arratekultu/>

<http://www.eibar.org/arrate>

## **ARRATE KULTUR ELKARTEA SORTU ZEN GARAICO**

### **TXIPRISTINAK**

#### **“Racionamiento”-ren bukaera eta grebak**

1951 urtean Francoren Industria eta Merkaritzaren Ministeritza bitan zatitu zen eta kronikak diotenez, Gobernu berriak “opta por aligerar su política intervencionista (supresión del racionamiento de alimentos en 1952), si bien habrá que esperar hasta 1959 para su liquidación definitiva.” Urte horren hasieran, urtarrila eta apirila bitartean grebak eman ziren Bartzelona aldian eta baita ere Euskalerrian, batez ere Eibar, Arrasate eta Bergaran. Apirilean, 2000 langile detenitu zituzten grebetan parte hartzeagatik.

#### **Kultur giroa Euskalerrian, 1952ean**

1952 urtean Itxaropena Argitalpenak-ek "Kulixka sorta" bilduma sortu zuen eta Iratzederrek "Herri-mina" poema idatzi zuen eta Emeterio Arresek "Olerki berritze" argitaratu zuen. Inazio Maria Etxaide euskaltzainburu izendatu zuten.

Telesforo Monzonek Eusko Jaurlaritzako kontseilaritzatik dimititu zuen. Eta urte berean Bilboko ikasle-talde batek (Txillardegia, Julen Madariaga eta Jose Benito del Valle tarteko) Ekin talde politiko abertzale klandestino sortu zuen. Kideen heziketa (euskal historia eta kultura, euskara) eta euskal erresistentziaren informazioa biltzea zuen helburu, baina laister ekintza politikora zabaldu zuen bere xedea eta mugimendu politiko gisa beste hirietara ere hedatu zen. Geroago, EGIkoekin elkartu eta Euzko Gaztedi sortu zuten, baina batasunak ez zuen luze iraun. Ekinetik zetozen militanteek ez zuen alderdiaren kontrola onartzen eta tirabira askoren ostean, 1958an, Euzko Gaztedi utzi eta Euskadi Ta Askatasuna talde politiko berria eratu zuten.

Donostian 1952 urtean Lehen Munduko Pilota Txapelketak jokatu ziren eta, Donostian ere, I. Zinemaldia sortuko da.

#### ***S.D Eibar bigarren mailara eta Bicicleta Eibarresaren sorrera***

1952-53 denboraldian S.D. Eibarrek txapeldun izan zen eta bigarren mailara igo zuen lehen aldiz. Gainera, denboraldi horretan “Campeón de España de Aficionados” izan zen ere Zaragoztan Rayo Vallecano taldeari irabazi zionean.

Bicicleta Eibarresa, gaur egungo Euskal Bizikleta 1952 urtean sortu zen ere. Juanjo Sebastian-ek kontatzen digu nolakoa izan zen sorrera hori:

*“En el año 52, Eibar pasó a la historia celebrándose la primera Bicicleta Eibarresa organizada por el Club Ciclista Eibarrés en conmemoración del 25º aniversario de su fundación.*

*Esta Bicicleta Eibarresa nació dentro del ambiente que se vivía en Eibar de afición al ciclismo, pues ese mismo año, el Club Deportivo de Eibar organizó en Marzo el XVII Campeonato de España de Ciclo-Cross por segundo año consecutivo, ganado por Julián Aguirrezábal, que tuvo que celebrarse a la tarde pues a la mañana, como estaba previsto en un principio, tuvo que ser suspendido por la nieve. Por otra parte, este mismo Club organizó por doce años consecutivos la Subida a Arrate que ese año se celebró el 16 de Marzo prueba ganada por Hortensio Bidaurreta que cubrió los cerca de 8 km. En un tiempo de 22'56".*

*Coincidiendo con las fiestas de San Juan, el Club Ciclista Eibarrés solía organizar Gran Premio San Juan que daba cita a los mejores ciclistas del estado español.*

*Todos estos acontecimientos ciclistas solían ser narrados por el que fue presidente del Club Deportivo Eibar Juan Guisasola en el bar que regentaba "Bar Txoko", que con gran habilidad y buena caligrafía escribía en el cristalera del bar marcando las letras desde dentro al revés con un vaso de blanco-españa, donde contaba todos los acontecimientos ciclistas que él oía por la radio: Tour de Francia, Giro de Italia, etc. Existía rivalidad entre los dos clubes eibarreses por el afán de organizar mejor, tratando de tener la mejor participación en las pruebas, lo cual no impedía que hubiese colaboración a la hora de organizarlas y mucho más al tratarse de una prueba de envergadura como la Bicicleta Eibarresa. Con esta vuelta de tres etapas y junto con la "Volta a Catalunya" se trató de hacer un calendario profesional para poder dar vida al ciclismo de élite en una época en la que había desaparecido la Vuelta a España, La Vuelta al País Vasco, El Circuito del Norte. A consecuencia de ello los ciclistas del estado español acudían al Tour de Francia sin apenas competir, lo que suponía una desventaja respecto a sus rivales.*

*La financiación de la prueba era posible en gran parte a la ayuda recibida de las fábricas de bicicletas que se encontraban ubicadas en Eibar, principalmente Orbea, G.A.C., B.H. y otras que por medio de esta prueba daban a conocer el artículo que ellos fabricaban por medio de caravanas publicitarias, que resultaban muy vistosas, pues en aquella época, aparte de los medios escritos, prácticamente no había otra forma de llegar al consumidor.*

*Aquella primera edición fue organizada por Alfredo Delgado, Casto Aristondo, Juan Larrinaga, José Solozábal, José Ramón López, Ramón Sarasua, José Luis Balenciaga, Fernando Zuloaga, Julio Gárate, Javier Biteri y Antonio Sarasua (presidente del Club) a los que en años posteriores se les uniría más gente. A estos organizadores eibarreses había que añadir a Antonio Iturmendi (ministro de Justicia), los gobernadores civiles de Alava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra, así como los cuatro alcaldes de las capitales. Sin todas estas personalidades en la organización no era posible organizar la prueba.*

*Tanto el aspecto organizativo, como el deportivo (el ganador fue el francés Luis Caput) fue un éxito por lo que se continuó organizando durante 22 ediciones y relevada por lo que hoy se conoce como Vuelta Ciclista al País Vasco.*

*En 1.981 las nuevas generaciones del Club Deportivo de Eibar y el Club Ciclista Eibarrés se unieron para volver a organizar pruebas ciclistas para profesionales, que, después de algunos cambios a los largo de estos años, conocemos ahora como Euskal Bizikleta. “*

### **Eibar Aldizkariaren sorrera**

Pedro Celaya-k Eibar Aldizkaria sortu zuen 1952 urtean. Geroago, duela gutxi zendu den Jose Mari Kruzetak, Arrate Kultur Elkartearen bazkide eta euskalzale ezagunak, zuzendu egin duen herri aldizkaria.

Urte honen hasieran, Felix Morquecho-k DV-n horrela gogoratzen zuen Eibar Aldizkaria:

*“Lo que nació como una prolongación del boletín del Obispado allá por 1952, cumple durante este mes 50 años. Poco podía pensar entonces el sacerdote Pedro Celaya que aquella publicación se convertiría en publicación ineludible para cientos de eibarreses, muchos de ellos, residentes fuera de la ciudad. Tras el fallecimiento de Celaya hace ocho años, José Mari Kruzeta asumió la dirección de la revista, que llega hasta nuestros días de forma bimensual, con 1.500 ejemplares por tirada.”*

(...)

### **Txistularien Elkartearen Sorrera Eibarren**

(Relato de cómo se inició la fundación de la Asociación de Txistularis de Euskalerrria, Sandalio Tejada, nº63, 1970, p. 11 eta “Historia de una Asociación”. José M<sup>a</sup> Rodríguez Ibabe)

*“El acontecimiento que sirvió de punto de partida de todo el proceso de puesta en marcha de la Asociación fue la celebración el 28 de Septiembre de 1952 de una concentración de txistularis, organizada por el Ayuntamiento de Eibar, con objeto de conmemorar las bodas de plata de la proclamación de la Virgen de Arrate como Patrona de los Txistularis.*

*«En Septiembre de 1952. el Ayuntamiento de Eibar consiguió el permiso para celebrar una fiesta de Txistularis en Arrate. El mérito fue tremendo en aquel tiempo, pero lo consiguieron y allá fuimos. En medio de un gran entusiasmo, el P Galdós que presidía el acto, juntamente con el alcalde Sr. Orbea y por indicación de Isidro Ansorena (soy testigo de ello), lanzó la idea de volver a formar la Asociación. Todos los asistentes se entusiasmaron y se nombró una comisión representativa con el Alcalde, el P Galdós, Ansorena, Azurmendi, Bengoa. el director de la Banda de Música, Lucas Ganuza y yo mismo. Nos sacaron una foto, pero luego, Isidro formó una comisión ejecutiva presidida por él y nos incluyó a Martínez de Lecea de San Sebastián, Bengoa de Eibar, Lascurain de Vergara, Azurmendi de Cegama y a mi.” (Fernando Vidal.)”*

### **Elkarteko beste txipristin batzuk**

Zine Proiektorea 1962 urtean erosi zen eta 151.000 peseta kostatu zen.

Liburutegia 1964eko urriaren 1ean zabaldu zen, 700 libururekin.

1964 urtean “Comisión de Enseñanza” sortu zen klaseak doan emateko analfabetoei. Egunero ematen ziren klaseak.

Tabernaren alokairua 25.000 pezeta hilerokoa zen 1964 urtean.

Caja de Ahorros Municipal-ak 100.000 pezeta balio zuen pianoa eman zion elkarteari 1963 urtean..

1967 urtean Mario Onaindiak bultzatuta, Escuela Social zabaltzeko asmoa izan zen, baina Gobierno Civil delakoaren oztopoak zirela eta, bertan behera jausi zen proiektua.

Urteetan itxita egon ondoren 1991 urtean erakusketa aretoa, Topaleku-a, oraingoan kaleari begira, ireki zuen Elkartek



## ARRATE KULTUR ELKARTEA GAUR

“Hau da Kultura eguneroko ohitura bihurtu gura”



### **50 Urte Euskal Kulturaren alde**

1952. urtean S.C.R ARRATE izenarekin jaiotako ARRATE KULTUR ELKARTEA, urteetan zehar Eibarko eta eskualdeko kultur mugimenduaren ardatz bihurtzera iritxi zen, hainbat arlo ezberdinetako ekimenak eskaini zizkion Eibarko herriari: hitzaldiak, kontzertu musikalak, antzerkiak, erakusketak, zineforum, biblioteca zerbitzua, kirol minoritarioak, ikastaroak, Euskal Jaien antolaketa, etabar.

1952. urteko uztaietan sortu zen Arrate Kultur Elkartea, Sociedad Cultural Recreativa Arrate izenarekin eta Congregación de Jóvenes de Arrate elkartearen azpitalde bezala. Kultur arloari ekin behar zion talde sortu berria ordurako kirol kontuetan lanean ziharduen taldeari batu zitzaion, oraindik ere bizirik dirauen Juventud Deportiva Arrateri, hain zuzen ere.

Arrate Kultur Elkartearen hazkunde prozesua 1960ko hamarkadan sendotu zen, Zuloagatarren kalean egun dituen lokalak zabaldu zirenean. 350 pertsonarentzako kafe-antzokia, kontzertu eta erakusketetarako aretoa, liburutegia, taberna, billar aretoa eta beste hainbat gela ziren garai hartako eskaintza.

Urte askotan eta baliabide kulturalen eskasia zela medio, Arrate Kultur Elkarte eta bere egoitza Eibar zein eskualdeko kultur mugimenduaren ardatz bilakatu ziren. Hitzaldiak, kontzertuak, zinema-forumak edo herriko lehen Euskal Jaiaren antolakuntza aipa daitezke, beste batzuen artean

1990eko hamarkadan eginiko estatutu aldaketari, Topalekuaren irekierari eta gure lokalak erabilera kulturalerako egokitzeko eginiko obrei esker, apurka-apurka Arrate Kultur Elkartearen ekintzak ugaritzen joan ziren Azkenengo urteetan, ahal den neurrian lokalak berriztu eta apainduz, komizioak sortuz eta ekintza kulturalak antolatu eta bultzatuz, Elkarteak Eibarko eta bailarako bizitza kulturean bereak ari du ematen, etorkizunerako bideak zabaltzen dituen bitartean.

### **Eguneroko lana**

Azkenengo urteetako ildoari jarraituz eta elkartearen helburuei erantzuteko asmoz, eguneroko lanean ARRATE KULTUR ELKARTEAK hiru ardatz nagusi garatu nahi ditu:

- a) produkzio kultural propioa eragitea.
- b) herriko eta eskualdeko beste kultur elkarteekin harremanak estutuaz, elkar-indarrak eta elkar lanak bultzatzea.
- d) elkartearen lokalen erabilpena bultzatu eta, ondorioz, beste kultur taldeei, kirol taldeei, giza mugimendu, partidu politiko, eta abarrei lokalak eskaini, beraien aktibitateak osatu ditzaten.

Gainera, Arrate Kultur Elkartearen estatutuen bigarren artikulua dioenez, bere helburuen artean, honako hauek daude:

- Maila orokorrean kultura hedatzen lagundu, eta bereziki euskal kultura.
- Hiritarren garapen osoari lagundu, bai maila pertsonalean nahiz komunitarioan.
- Giza baloreak praktikan jartzeko bideak eskaini.

Urtero egiten diren ekitaldiekin ARRATE KULTUR ELKARTEAREN programazio kulturala finkatu egin da: erakusketak, hitzaldiak, mahai inguruak, ikastaroak, liburutegia, dantzak, txango kulturalak,... egun urtero 20.000 baino lagun pasatzen direlarik elkarteko lokaletatik eta era berean 50-60 artista, idazle edo hizlari, parte hartzen dute ekintzetan.

Gaur egun lantzen diren arlo aipagarrienak honako hauek dira

### **Erakusketak TOPALEKU Aretoan.**

Bataz beste, urtero 20 erakusketa anitzak programatzen dira Topalekuan: margolaritza, zurgintza,



zeramika, argazkilaritza,... etabarreko lanekin. Bataz beste erakusketak 10 eguneko iraupena izaten dute.



Artista taldea Kulturaleko Topaleku Aretoko erakusketan, besteak beste: Iñaki Larrañaga, Paulino Larrañaga, Baroja, Marino Plaza, Beorlegi, ...

### **Erakusketak Kultu Taberna kafetegian.**

Formato txikiagoak dituzten artistak Kultu Tabernako gunea dute erakusketak aurkezteko.

### **Hitzaldiak eta mahai inguruak.**

Uztaila eta Abuztua kenduta, bataz beste hilabetero gai anitzen inguruan hitzaldi edota mahai inguru bat antolatzen du Arrate Kultur Elkartea. Horretarako lehen solairuko hitzaldi aretoa erabiltzen da.



Mahai ingurua Arrate Kultur Elkarte, agerian: Serafin Basauri, Fernando Beorlegi, Pello Zubiria,...

### **Ikastaroak**

Azkenengo urteetan ikastaro ezberdinak daude martxan Arrate Kultur Elkarte (Dantza, Margolaritza Tai-Chi). Talde finkatuak daude eta 100 pertsona inguruk jarraitzen dituzte kulturakeko ikastaroak.

### **Bertsolaritza**

Azken urteetan Arrate Kultur Elkarteak bertso bazkariak eta bertsoen inguruko hitzaldiak antolatzen dihardu. Horrela, Murua, Peñagarikano, Egaña, Lizaso bertsolariak edota Egaña eta Gartzia Eibarko Kulturalean izan dira bertso ekitaldi ezberdinetan. Mariasun Oteiza eibartarrak jardun du gai jartzaile bezala.



Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsotan Arrate Kultur Elkartean..

### **"Eguen Zuri" argazki lehiaketa.**

Urtero, Arrate Kultur Elkarteak, “ *Eguen Zuri argazki lehiaketa*” antolatzen du. Dagoeneko 5 edizio egin dira. Lehiaketaren bidez, nolabait, aratoste edo Karnabaletako oroitzapen fisikoa gera dadin. Lehiaketa " Aratosteak " (hau da, inauteriak edo karnabalak) lemapean eta gai horrekin lotuta antolatzen da. Lehiaketa irekia eta librea da zaletu guztientzat.



J.L.Irigoien “IV Eguen Zuri Argazki Lehiaketa”ren irabazlearen argazki bat.

**Udako ikus entzutekoak eta musika San Andres elizako klaustroan:**

Udarako gauak girotzeko asmoz, diaporama eta musika ekitaldiak antolatzen ditu Arrate Kultur Elkarteak. Azken lau urteetan Uztailaren hasieran, diaporamak eta musika elkarturik, **San Andres elizako klaustroan** egiten dira ekitaldi hauek,



### **Txango kulturalak:**

Printzipioz, hiruhilabeteka behin irteera edo txango cultural bat egiten da eta irteera bakoitzari buruzko hitzaldi bat egiten da ere. Horrela, azken urteetan Isturitz –Oxocelhaya, Guggenheim museoa, Altamira. Enkarterriak, Lizarra, Zientzia Museoa, etabar bisitatu dira, aldez aurretik leku hoiei buruzko hitzaldi edota diapo erakusketa antolatu ondoren.



*Bilboko Guggenheim museoa*



*Isturitz –Oxocelhayako kobazuloak*

### **Lokalak herriko elkarte eta erakundeen erabilerarako utzi**

Elkartearen ekintza kulturalaren ardatzen artean, bere lokalen erabilera bultzatzea dugu. Aipatua izan da elkartearen ondasunen artean lokalak garrantzi handia dutela. Beraz, ondasun hauei errentabilitate kultural ahalik eta handiena lortzea nahi diegu, ez baitzaigu bidezkoa iruditzen erabili gabe eta hutsik egotea.

Hori dela eta, lokalen erabilera irekia da talde eta elkarte guztiei aurrerago aipatu ditugun lehentasun eta baldintzekin. Bataz beste, urtero 75 bilera eta batzar egiten dira gure lokaletan.

### **Egitarau eta ekitaldi amankomunetan parte hartzea,**

Arrate Kultur Elkarteak, besteak beste honako elkarte edo ekimenekin kolaboratu eta bat egiten du: Berbia emon, elkarte egiten, Euskal Jaia, Bai Euskarari, Korrika, Eibar.org ...



### **Kultuberri newsletter elektronikoaren argitalpena**

1998 urtean, KULTUBERRI aldizkaritxoa bazkideei bereziki eta Eibarko herriari orokorrean Elkartearen ekintzen berri emateko asmoz kaleratzen hasi zen aldizkari infomatibo bezela. Gaur egun teknologia berriei esker, elkartearen ekitaldien berri emanez, posta elektronikoaren bidez banatzen da astero. Internet-en gune propia du eta <http://www.yahogroups.com/group/kultuberri> helbide elektronikoan ikus daitezke orain arte banatu diren 60 aleak.

### **Arrate Kultur Elkarteko webgunea:**

Tecnología Berriei esker eta ganean dugun Informazio Gizartean murgildu nahirik, Arrate Elkartek bere espazio propioa du Interneten: Kulturalako Webgunea. Bertan elkarteari buruzko informazio ugari aurki daiteke: ekitaldien berri, argakiak, dokumentuak, hitzaldiak etabar.



Arrate Kultur Elkarteko webgunea

## ***Etorkizunari begira***

Gure gizartean hain azkar gertatzen ari diren aldaketek era zuzenean eragiten dute bere barneko egitura eta ezaugarrietan. Aldaketa horiek edozein herritan suertatzen diren harremanetan nabarmentzen dira, eta baita giza eta kultura munduan ere.

Arrate Kultur Elkarteak ere, etorkizuneko erronkei aurre egin beharko die, dudarik ez:

- Demografiaren aldaketak
- Kultur eskaintza berrien agerkeria
- Teknologia berrien eragina kulturaren
- Individualismorako joera gizartean
- ...

Arrate Kultur Elkartearen 50. Urteurrena dela eta, Kultur Elkartearen etorkizunari buruzko mahai-ingurua antolatu genuen eta gurekin AED, Zenbat Gara, Kafe Antzokia, Izarra Elkartea, Uztarrria eta Arriola Aretoko lagunek izan ziren. Gaiak pare bat ordurako baino gehiagorako ematen du, baina bertan agertutako gaiak eta gure hausnarketa batzuk aipatuko ditugu:



Bazkide edo militanteen funtzio berria. Besteak beste, indibidualismo joera dela eta, gaur egun profesionaltasuna ezinbestekoa dela dirudi kultur elkarteetan, baina etorkizunean ere bazkideen inplikazioa behar beharrezkoa izango dugu, bazkideei espazioak utziz gustukoak dituzten ekimenak garatu dezaten.

Teknologia berriei egokitu beharra, elkarteek informazio eta komunikazioaren teknologia berrietan oinarritu beharko dute erabiltzaile eta produktore gisa. Internet erabiltzaileak izan beharko dugu eta gure eskaintza zabaldu medio berriak erabiliz, baina interneterako eduki sortzaileak izan beharko dugu ere. Adu guztien iritzian, gaur egungo kultura-sistemak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan oinarritu behar du etorkizunean sartzeko, eta, horrez gain, eskariaren etengabeko dibertsifikazioari erantzuteko gai izan beharko du.

Elkarteen arteko hartu emanak estutu beharko ditugu, inguruko eta urrutiko beste kultur elkarteekin. Seguruenik, Kultur elkarte bakoitzak bere espezializazioa bilatuko du, baina ezinbestekoa egingo zaio gainontzeko elkarteekin erlazionatzea.

Gero eta gehiago elkarteak kaleratu beharko ditugu, komunikazio arloa indartu, baina era berean kalea, gizartea, elkartera erakarrit.

Publiko eta pribatuaren arteko kolaborazio bideetan sakondu beharko dugu.

Giza aldaketei eta aldaketa demografikoei egokitzen joan beharko dugu, zaharren kopurua handitzen doa eta etorkinak ugaritzen, ondorioz elkarteak egokitu beharko dira ere errealitate berri hauei.



## Elkartearen DESKRIBAPENA

<b>Fundazio urtea:</b>	1952	
<b>Egoitza soziala:</b>	ARRATE KULTUR ELKARTEA Zuloagatarren kalea, 3 20.600 EIBAR	
<b>Tfnoak:</b>	(943) 20 22 99 - 20 84 39	
<b>Elkarte-Errolda Nagusian erroldatua:</b>	1a. Sailean, RPG/98 zenbakiaz.	
<b>Bazkide kopurua:</b>	300 bazkide	
<b>Zuzendaritza Batzordea:</b>	Presidentea	Jesus M <sup>a</sup> Gisasola
	Presidenteordea	Ima Berasaluze
	Idazkaria	M.Asun Gartzia Arregi
	Diruzaina	Eneko Astigarraga
<b>Batzorde arduradunak:</b>	Artisten komisioa:	Elisabet Eguren/M Agirrezenitagoia
	Komisio soziala:	F. Bergara
	Ikusi eta ikasi:	M. Garate
	Komunikazioa :	I. Astigarraga
<b>Elkartearen lokalak:</b>	1.000 m <sup>2</sup> gutxi gora behera	
<b>Beheko solairua:</b>	Taberna-kafetegia:	100 m <sup>2</sup> inguruko lokala
	"Topaleku" aretoa:	Erakusketa eta hitzaldi
	aretoa. 80 m <sup>2</sup> ingurukoa	
<b>1. solairua:</b>	Balioanitzeko aretoa	150 pertsona
	2 batzar gela	20-25 pertsona bakoitza
	Egoitza-liburutegia	30 pertsona
	Idazkaritza	
	Komunak	
<b>Zinema-antzoki aretoa:</b>	zinema-antzoki aretoa	350 pertsona ingurukoa (egoera txarrean)
<b>Sotanoa:</b>	Sukaldea, almazenak, komunak, areto txikiak,...	200 m <sup>2</sup>
<b>Bulego orduak:</b>	<b>Astelehenetik Ostiralera 19,30etatik - 21,00etara</b>	
<b>Konserjeria kafetegian:</b>	<b>Egunero 07,00-23,00</b>	
<b>Zuzendari batzordearen bilerak:</b>	<b>Astelehenetan 19,30 tik aurrera.</b>	

**Mila esker liburu honen gora berehetan lagundu duten guztiei!**

**Acha, Felix**  
**Aguirresarobe Javier**  
**Aiarza, Joseba**  
**Aranberri Jose**  
**Aranberri L.A. "Amatiño"**  
**Araolaza Oier**  
**Arroitajauregi Felix**  
**Astigarraga Eneko**  
**Azpiri Begoña**  
**Barrutia Ernesto**  
**Berasaluze Arrate**  
**Berasaluze Ima**  
**Fernandez A.**  
**Garate Castor**  
**Garate Maribel**  
**Garate Begoña**  
**Gartzia Mariasun**  
**Gisasola Jesus Mari**  
**Gutierrez Jesús**  
**Ibargutxi Aitor**  
**Irigoien Jose Luis**  
**Izagirre, Koldo**  
**Larrañaga Iñaki**  
**Lopez Pedro**  
**Narbaiza Antxon**  
**Retolaza Fernando**  
**Salegi Jose Mari**  
**Sebastian, Juanjo**  
**Usobiaga Mikel**  
**Zenarruzabeitia, Danel**

**eta urteetan zehar lagundu diguzuen bazkide eta lagun guztiei**

**EIBARKO UDALA  
EUSKADIKO KUTXA**

